

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a / 663. zenbakia



ETA GAINERA,
TELEBISTA
GEHIGARRIA

Asteon



JOSE MARI ARZAMENDI

ARRASATEKO LEHEN
ZIRUJAUAK ERRETIROA HARTU DU

ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/9 • KIROLA: IRAUPEN ESKI IKASTAROA/11

OSASUN GIDA/24

ARGAZKIA: XABIER URZELAI



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.
Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

**LIA ALTUNA
BEGOÑA LASAGABASTER**
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA
Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

KALEINKESTA/ Ze egin biherko litzake Mondragueko Karnabalak indderketako?



UNAI ARZELUS
Ikasle



IBAI ARRIETA
Ikasle



INAZIO JIMENEZ
Jubilau



ESTHER LEARRETA
Langillie



OSANE MENDIZABAL
Langillie



FATIMA SANCHEZ
Langillie

Betidanik martitzenien zelebrau bada, egun berien ospaketan jarraitu biherko litzake, baiñe eguaztenien jai emunde. Seguru jaixe gehixago inddertuko litzakela.

Martitzenien zelebretie tradiziñue bada, holaxe jarraitu biherko leuke. Horrez gain, jaixe aurreko aste bukaeran hasi biherko litzake eta martitzenara arte luzatu, Tolosan moduen.

Martitzenien bakarrik zelebretie ez da nahikue. Eguaztenien jai emun biherko leukie, martitzenien parranda haundixe egin ezkeru, deskantsetako aukerie eukituko.

Ez naz oso Karnabal-zalie, eta aspaldi ez dot parte hartu. Umiek ondo zelebretan daue, ikastolan eta kalien gustora ibiltten die, eta martitzen atsaldien ambiente ona egoten da.

Lehen, zapatuetan zelebretan zan, eta domekie jai izenda jentie gehixau animetan zan. Hori rekuerau egin biherko litzake. Neu, egixe esanda, ez naz oso Karnabal-zalie.

Domekan Aretxabaletan zelebretan danez, guk zapatuen egin biherko geuke. Martitzenien umiendako gauzak bakarrik egoten die. Nagusixek zapatuen gehixau animauko gitzake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ABIADURA HANDIEGIA Zaldibar inguruan bizi diren lagun batzuek jakinarazi digute Eskualdeko Ospitalearen eta San Andres auzoaren arteko errepidean, Zerrajera ondoan, autoak oso azkar ibiltzen direla, azkarregi. Herri barruan ez litzateke halako azkar joan behar; are gehiago, errepide hori Eskualdeko Ospitalearen eta Zaldibarko jolasgunearen albotik igarotzen baita.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9

KIROLA /11

KULTURA /14

San Josepe harrobia

Harrobiko langileen ikuspuntua eta PSE-EEK harrobiaren gainean egin duen balantzea.

Skate eskola Musakolan

Zapatu goizean, skate eskola egingo dute Arraska taldeko kideek Musakolako kiroldegian.

Julen Ribas marrazkilaria

Julen Ribas marrazkilarari elkarrizketa egin diogu. Azkenaldian komikiak egiten dihardu.

ASTEKODATUA

431

ZUHAITZ LANDATUKO DITUZTE ZUHAITZ EGUNEAN

Martxoaren 5ean, Zuhaitz Egunean, Udako Ingurugiro Eskolako irakasleek, 6. mailako ikasleek eta gura duten erretiratu guztiek 431 zuhaitz landatuko dituzte Garagartzan.

BESTEKEKESANA

“ Irailetik Madrilen modelo lanetan nabil. Abuztuan, Don Algodonekin lan egiteko behar

nindutela esan zidaten. Hilabeteko proba egin nuen, eta han jarraitzen dut. Horrez gain, modelo agentzia baten ere banabil casting-ak eta argazkiak egiten. (...) Lan honetan egun baten lan asko dugu eta hurrengoan ezer ere ez. Lanbide honek gauza onak ditu: lagun asko ezagutu, bidaiatu... Horrek asko aberastu nau. Bestalde, gauza txarrak ere baditu: askotan bakarrik egotea, gauetako festetako arriskuak... Oso garrantzitsua da hankak lurrean edukitzea. Are gehiago, lanbide honetan ezinbestekoa da burua argi edukitzea. Politizatearekin bakarrik ez zara oso urrun helduko”

MAIALEN FERNANDEZ DE ARROIABE
ARRASATE IRRATIA/2004-02-26

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Sosegua eta bakea

Etorri zaigu azkenean ere aitona bizarzuria, urteroko bisitatxoia eginez -betiere negu partean-, eta arditxoak sartu dira hotz-hotzez txabola zaharrean, kanpoan ez da giro; edurra ari du mara-mara, zeinen ikuskizun ederra.

Urtero lez, edurrak oparitu digu sosegua eta bakea, eguneroko abarrotsean tregoa zuria.

Baina aurten aitona zaharra ez zaigu kuku egin eta latitude borealetara itzultzeko asmoz etorri itxura. Etorri da geratzeko. Ez Mayor ez, hau ez da tregoa xuria. Itxita daude mendateak, Opakua lehenengo, gero Herrera, Jose Luis Iñarra pasealekuko aldapa hurrengo. Eta autoen, eta kamioien burrundara amatatuz joan da errepideak zuritu ahala -baita 4x4ena ere, safari-txoferran amorratorako-. Hornidura faltan, fabriketako produkzioa bertan behera geratu da -jainko maitea, produkzioa!-, makinak lozorroan daude

nabe hutsetan, langileak Olandixoko maldan dabilta, galtzontzilo kuleroak bustibusti, plastikoekin txirristan, to forfait!

Edurra, uraren eta suaren moduan, belaunetik behera, hala dio antzinakoen jakituriak; baina belaunak ez eze,

“Makinak lozorroan daude nabe hutsetan, langileak Olandixoko maldan dabilta, plastikoekin txirristan”

potroak ere aspaldi geratu zirene edur azpian -jainko maitea, potroak!-. Irrati eta telebista kateak, txutxumutxuak eta txepelkeriak momentuz ahaztuta, biztanleria lasaitzen saiatu dira -tenporak eta gobernuaren

neurri zorrotzak- errepitido-reak edurtzan ito diren arte. Informazio iturriak agortuta, zorabioa eta nahastea dira nagusi populan, Jesulin de Ubriquek ETArekin hitz egin duela, Carod Roviraren amorante berria Real Madrideko jokalariren bat ote den...

Eduurrak azpian hartu ditu aziendak, soloak, pinudiak, eta isiltasuna jabetu da munduaz. Nagusi dira -orain bai- sosegua eta bakea.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 27**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 28**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 29**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 1**
Español. Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- MARTITZENA, 2**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 3**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUENA, 4**
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 5**
Azkoaga. Iturriotz 17. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

1940KO EMAKUMEAK
1940an jaiotako emakumeek urteroko bilkura egingo dute martxoaren 27an. 13:00etan, meza izango dute San Juan Bautista elizan. 14:30ean, bazkaria izango dute Musakola Hostalean. Interesatuak izena eman beharko dute Hiren edo Begoña lurrindegian martxoaren 20a baino lehen, eta 15 euro ordaindu beharko dituzte.

FOLK KONTZERTUA
Gaur, egubakoitza, Irlandako Skifaia taldeak folk kontzertua egingo du Dublin pubean, 23:30ean.

EA-REN EKITALDIA
Domekan, Eusko Alkartasunak mitin nagusia egingo du Donostian, 12:00etan. Arrasateko taldeak autobusa antolatu du, eta bazkaria ere bai. 10:00etan Abaroatik irtengo dira. Interesatuak jo Alkartetxera edo deitu honako telefono zenbakira: 943 71 27 88.

BIODIBERTSITATEA ERAKUSGAI
Udalako Ingurugiro Eskolak biodibertsitatearen gaineko erakusketa egingo du Monterronen. Erakusketak bi atal izango ditu: *Gipuzkoako Entomologia Taldea* eta *Ekosistemen panelak*. Martxoaren 1etik 15era ikusi ahal izango da erakusketa hori.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
AED elkarteak urtero antolatzen ditu Arrasate Lehiaketak. Iazko irabazlearen lanekin osatutako liburuxka eskuragarri dago AEDn. Gura duenak jo dezala bertara hartzera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren akzioak salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldean.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Gaztetxearen gaineko batzarra egin zuten

Gaztetxearen inguruko bizilagunek Udalari eskatu zioten eraikina intsonorizatzeko. Udalak, gazteek eta bizilagunek batzarra egin zuten. Udalaren esanetan, intsonorizatzea ezinezkoa zen. Gazteek kontzertuak goizago bukatzeko konpromisoa hartu, eta leihoak konpondu zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Kaskarrazur"



- Buruhezurra.
Ez igo teillatura kaskarrazurra apurtu nahi ezpozu.

GORKA ORTEGA


ARRASATE IRRATIA FM 107.7



San Josepe harrobiaren gainean

Astelehen goizean, San Josepe harrobiko langile batzuekin egingo dugu berba. Langile batzuk beldur dira harrobiaren ustiaketa luzatzen ez bada harrobia itxi eta lan barik geratuko direlako. Langile horien kezka jasoko ditugu, 09:30ean.

Martitzenean, berriz, Estitxu Fernandez egindako elkarrizketa entzuteko aukera izango dugu. 19:00etako albistegiaren ondoren eskainiko dizuegu Aintzane Gardokik ETBko aurkezleari egindako elkarrizketa.



Maialen modelo lanetan Madrilen

Aste honetan elkarrizketa egin diogu Madrilen modelo lanetan dabilen arrasatear bati, Maialen Fernandez de Arroiaberi. Zertan dabilen eta modelo lana zelakoa den kontatu digu. Elkarrizketa zapatu eta domeka goizean errepikatuko dizuegu, baita San Juan elizako parroko Genaro Lekuonarekin izan duguna ere. Garizumako ospakizunak zeintzuk diren kontatu digu, eta azkenaldian polemika piztu duten zenbait gairen gainean ere jardungo du.

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 24	-2 °C
MAXIMOA Domeka, 22	15 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	48,5 L
	Max. Min. Euria
Eguaztana, 18	12 °C 2 °C 2,9 l/m²
Eguena, 19	6 °C 3 °C 16,8 l/m²
Egubakoitza, 20	4 °C 0 °C 10,1 l/m²
Zapatua, 21	6 °C 1 °C 11,8 l/m²
Domeka, 22	15 °C 0 °C 4,1 l/m²
Astelehena, 23	6 °C 0 °C 1,6 l/m²
Martitzena, 24	6 °C -2 °C 1,2 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albistekak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Itzian Arratibel, Manu Azkarate presoaren egoeraz; Leire Okarantza abokatua; Genaro Lekuona parrokoa...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albistekak.
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: merideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean: Estitxu Fernandez
- EGUENA**
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Ezker Batuaren proiektu politikoa

Joan den egunean aurkeztu zuen Ezker Batuak federalismoan oinarritutako proposamen politikoa. Berbaldia federalismoaren arloan lanean dabilen Sabin Zubirik egin zuen, eta berarekin batera izan zen Ander Rodriguez, Arrasateko zinegotzia. Ezker Batuak gura du, Ibarretxe Plana dela eta egingo den azterketa eta eztabaida politikoan, bere proposamena ere eztabaidagai izatea, aurkeztuko diren beste guztiakin batera.

Ezker Batuaren proposamenak bat egiten du Ibarretxe Planaren puntu batzuekin, baina baditu funtsezko berezitasunak.

Ate irekien jardunaldiak MUn

Mondragon Unibertsitatean dagoeneko hasi dira ate irekien jardunaldiek. Ekaina bitartean 23 jardunaldi egingo dituzte Euskal Herriko hainbat fakultatetan.

Jardunaldiotan fakultate bakoitzak aurkeztuko du zehatz-mehatz ze eskaintza akademiko duen, eta ze titulazio ematen dituen. Ate irekien jardunaldietan aukera egongo da sail bakoitzeko arduradunekin eta irakasleekin berba egiteko, eta dituzten zalantzak adierazteko. Horrez gain, jardunaldi horietan esku hartzen dutenek MUko instalazioak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute.

Udal aldizkariaren bigarren zenbakia kalean

Dagoeneko kalean da Arrasateko Udal aldizkariaren bigarren zenbakia. Azaleko argazkian Arrasate elurtuta ageri da, eta, egia esan, azken egunotako eguraldia ikusita asmatu egin dute. Bigarren zenbaki horretan, besteak beste, garraio publikoaren eta zirkulazio arazoaren gaineko iritzia eman du Arrasateko alkate Inazio Lakuntzak. Bost mila ale kaleratu dituzte, doan, eta kioskoetan dago eskura.



Osoko bilkuren aretoan prentsaurrekorik ez

Arrasateko Udalak erabaki du hemendik aurrera udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan prentsaurreko gehiagorik ez egitea. Orain arte, prentsaurreko eta berbaldi ugari egin izan dituzte osoko bilkuren aretoan, baina Udaleko ardura-dunek erabaki dute prentsaurreko gehiagorik ez egitea.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Herriarendako zerbitzuak

Gogoan daukat iaz egunkari baten azalean oso argazki bitxia ikusi nuela, ohituta ez gauden horietako bat, hain zuzen ere. Gipuzkoako herri handi bateko Udaleko Osoko bilkura aretoan eta alboko pasilloetan ume mordoak ageri ziren jolasean eta korrikan.

Kazetariak kontatzen zuenaren arabera, herriko

haurtzaindegian konponketa lan garrantzitsuak egin behar izan zituzten, eraikinak premia larria zuelako.

Arazo horren aurrean, Udalak erabaki zuen behin-behineko konponbidea aurkitzea, eta hiruzpalau egunetan ordu jakin batzuetan, jakina, Udaletxe-ko gunek batzuek horretarako utzi zituen. Helburua zen umeei eta gurasoei ematen zaien

zerbitzua ez etetea.

Argazki eta albiste horiek gogoratzearen arrazoia da aste honetan jakin duguna. Alkateak erabaki du Osoko bilkura aretoa zinegotzi- edota Udaleko kontuendako bakarrik erabil dezaketela. Itxuraz beste inork ezingo du Osoko bilkura aretoa erabili, ez prentsaurrekoak ezta berbaldiak egiteko. Kontuan hartuta halako ekitaldiak egiteko herrian leku gutxi daudela, ez dirudi oso erabaki herrikoa, ez horixe!

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

UDALAK GELMAREKIN HITZARMENA EGIN DU, ETA LANTEGIA LEKUZ ALDATUKO DUTE

Aste honetan, Udalak eta Gelmak hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, fabrika berria Nafarroa etorbidean eraiki beharko dute, beste lantegia duten lekuan. Modu horretan, 200 langileen lanpostuak ziurtatuko dituzte, eta horiek ez dute Araba aldera joan behar izango. Horrez gain, Gipuz-

koa etorbidean 418 etxebizitza egingo dituzte; horietatik 125, babes ofizialekoak.

Aspaldikoa da Gelma lantegia kenduko zuteneko zurrumurrua. Batek baino gehiagok ondo hartu du berria, langileak ez dituztelako kanpora bidaliko. Hala ere, ahots oso kritikoa entzun dira. //B.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

JAIK/ Aratuste-martitzena Arrasaten

Arratsaldean umeak eta nagusiak mozorrotu ziren; gauean, gazteak

ARRASATE PRESS

Askok diotenez, martitzena, lan eguna izanda, ez da parranda egiteko egun onena. Hala ere, urtero, hainbat arrasatear armairuak hustu eta kalera irteten dira mozorrotuta. Arratsaldean umeak bete zituzten kaleak; eta gauean, berriz, gazteek tabernak.

Batzuen zorionerako eta beste batzuen kalterako, Aratuste-martitzenean ez zuen elurrik egin, hala iragarrita zegoen arren. Arratsaldean, behintzat, ez zuen euririk egin, eta umeek eta gaztetxoek ederto gozatu zuten arratsaldea. Hala ere, mozorroa aukeratzekoan, komeni zen ondo janztea, egin zuen hotza ez zen txantxetakoia izan-eta. Umeek ez zuten aspertzeko astirik izan. Amaia Udal Antzokian pailazoez ikuskizuna egin zuten, eta

Kukubiltxo taldeak *Mamutxak* izeneko kale antzerki ikusgarria egin zuen. Ume mordoa batu zen, bai Amaia Udal Antzokian, baita Herriko Plazan ere.

GAZTEAK, GAUAREKIN BATERA

Arratsaldean, batez ere, umeak eta nagusiak ikusi genituen mozorrotuta. Gazteak, ostera, oso gutxi.

Afalorduan, ordea, gazte ugari irten ziren kalera, eta tabernak lepo bete zituzten. Are gehiago, urtero moduan, herriko hainbat eta hainbat tabernari mozorrotu egin ziren eta tabernak apaindu egin zituzten: *Jeningo harresia, infernua eta zerua, zezen-plaza, jolas-lekua, oihana...*

Gazte mordoa ibili zen kalean. Gazteak diogu, gainontzekoek hurrengo egunean lan egin behar izaten dutelako. Horregatik, joan den aspaldian, gazteendako egin-dako jaia izaten da, beste jai batzuk baino gehiago. / ARGAZKIAK: IKER BARANDIARAN



Sheriffa ibili zen Arrasateko kaleak zaintzen. Ez zen, baina, bakarrik ibili, hainbat laguntzaile izan zituen-eta.



Sheriffa bai, baina bidelapurak ere non-nahi.



60ko hamarkada gogoan dute askok. Eta argazkiko hippy koadrila da horren erakusgarri.



Argazkian azaltzen direnek ez zuten bat egin mozorroa aukeratzeko orduan.



Gizon bakarraren emazteak ei ziren argazkiko mairu horiek.




Benetako deabruak on aurpegi hori izango balu...



Nork esan du *ipotx* bati erretratua ateratzea ezinezkoa dela? Zuhaitz azpian duten etxetik irten eta kalean ikusi genituen.



Muruamendiarazko *amonatxoek* aurten ere ez dute kalerik egin.



Zein zirkutatik egin zuen ihes *pailazo* horrek?



Zuelle bera ere behin baino gehiagotan joan zen asun artera.



Imajinario handia behar da ezkerreko laguna zertaz mozarrotu zen asmatzeko.



Familia osoa irten zen kalera, Arrasateko Aratusteez gozatzera.



Argazkikoak nahastu egin ziren: Aratusteez ziren, ez Santamasak!

ELKARRIZKETA

JOSE MARI ARZAMENDI/ZIRUJAU

“Garai gogorrak bizi izan ditut, baina beti izan dut mondragoetarren errespetua”

XABIER URZELAI

Gaur bertan, Debagoieneko Ospitaleko lankideek agur-afaria egingo diote Jose Mari Arzamendiri. 38 urte Arrasateko ospitalean lanean ibili eta gero, erretiratzeko ordua iritsi zaio. Jose Mari-ekin izan gara berbetan, besteak beste, Arrasateko lehenengo zirujaua izan zelako.

Zer dela-eta zirujau?

Neurri handi baten, anaia Alfonsok bultzatu ninduen medikuntza ikastera, hura ere horretan zebilen-eta. Ni baino bi urte nagusiagoa da, eta eskolan ikasten zuena azaltzen zidan. Gustatu egin zitzaidan, eta bide horri heldu nion nik ere. Zirujau izatea geroago erabaki nuen, espezializazioarekin batera.

Non egin zenituen ikasketak?

Batxilergoko lehenengo hiru urteak San Viatorren egin nituen, baina Arrasaten ez zegoen Batxilergoa amaitzeko aukerarik, eta Gasteizera joan nintzen. Batxilergoa amaituta, Valladolidera joan nintzen Medikuntza ikastera. Lehenengo hiru urteak egin nituen han, baina oposizio bidez Fisiologiako barneko ikasle izateko plaza lortu nuen, eta Salamancara joan nintzen.

Salamancan Fisiologiako katedrako irakasle izan nintzen, Juan Jose Goiriena de Gandariasekin batera. Doktoretza egin nuen, baina nik medikuntza praktikoa maite nuen, eta Zirujau ikasketak egin nituen.

Eta, Salamancatik Bilbora.

Hala da, bai. Salamancan nengoela ezagutu nuen egun nire emaztea dena, eta Salamancatik Bilbora etorri ginen. Bilbon nengoela esperientzia handia hartu nuen lanean. Ordurako, baina, Lagun Aroren bitartez Iturriotzen kontsulta moduko bat jartzeko lanean hasita zeuden. Zuzendari ziharduen Ramon Balantzategik deitu egin zidan, Arrasatera itzultzeko esanez, eta gure anaia ere tartean zenez ezin izan nuen ezetz esan. Inoiz ez naiz damutu erabaki hura hartu nuelako.

Eta, orduan egin zen asistentzia zentroa.

Bai. Miraria izan zen, burdinak gordetzeko biltegi bat asistentzia zentro bilakatu zen-eta. Hurrengo bost urteak Arrasate eta Bilbo artean eman nituen, baina horrela ibiltzea nekagarria zen, eta Bilbokoa utzi egin nuen.

Zelakoak izan ziren urte haiek?

Gogorrak, oso gogorrak. Azken baten, bakarrik nengoan



XABIER URZELAI

“Sekula ere ez naiz damutu zirujau lanak egitera Bilbotik Arrasatera etorri nintzelako”

eta ardura handia neukan. Gainera, lehenengo urteetan ezin nuen ebakuntza handirik egin, anestesia eta horrelako kontuak oso atzeratuta zeudelako. Hala ere, apaltasun handiz esan dezaket ospitale handiagotan egiten ziren ebakuntzak Arrasaten ere egiten genituela.

Gainera, orduko medikuak ez zeukan ordutegirik.

Ez. Bakarrik nengoenez, ospitalekoek nondik nora nenbilen jakin behar zuten, uneoro. Afaltzera Bergarara joaten baginen, jatetxera edo tabernara iritsitakoan ospitalera deitu behar nuen, berririk ba ote zegoen galdetzeko. Gainera, telefonoak zeuden

“Zirujau bakarra nintzenez, nirea zen ardura guztia. Egun, taldeka egiten dute lan”

lekuetara joaten ginen, orduan ez zegoen-eta poltsikoko telefonorik. Gertatu izan zaigu San Sebastian egunean Donostiara joan, eta hotelera iritsi berri Arrasatera deitu eta korrika etorri behar izatea. Horrelakoak bat baino gehiago izan ditugu.

Anekdotak ere gura beste, ala?

Egia esan, bai. Behin, seme txikia hartu eta Zarautzera joan ginen. Hara iritsitakoan, baina, Arrasaten auto istripu larri bat izan zela esan zidaten, eta korrika bueltatu ginen. Arrasatera iritsitakoan egoera larria zen: hildakoak, larri zauritutakoak... Beste ezertan pentsatu barik lanean

“Lehen, medikuaren eta gaixoaren arteko harremana handia zen, eta hori igartzen dut faltan”

hasi nintzen jo eta su, eta, halako baten, erizain lanetan zebilen moja etorri eta sekulako errieta egin zidan; semea gorpu artean utzi nuen, eta han egon zen bi orduz. Eskerrak ez den oroitzen.

Garai hartan Mesedeetako Amako mojen laguntza handia izan zenuen.

Bai, eta biziki eskertu gura diet hori. Egun, gauzak oso ondo antolatuta daude, eta erizain profesionalak daude. Orduan, baina, ez zegoen horrelakorik, eta Mesedeetako Amako mojek egiten zuten lan hori. Edozein ordutan egiten zuten lan; eta esan beharra daukat Arrasaten lan handia egin dutela. Niri asko lagundu

zidaten, eta eskerrak eman nahi dizkiet horregatik.

Ez zen erraza izango Arrasaten lan egin eta bizi izatea.

Egia esan ez, baina herrian lan egin eta bizi izatea lortu dut, eta hori gauza handia da. Esan gura dut askorendako hori ezinezkoa dela, baina ni lasai-lasai bizi izan naiz Arrasaten. Egia da batzuetan zaila zela bizimodu normala egitea. Beti esan izan dut nik erakusleihen baten aurrean egin dutela lan, herri osoa izan da-eta nire ebakuntzen testigu. Gainera, kalera irteten nintzenean jendea galdetza etortzen zitzaidan: anaia baten eztarria zela, emaztearen apendizela zela...

Bere alde onak ere izango zituen.

Bai, eta asko, gainera. Bakarrik nengoenez, onerako edo txarrerako erabaki guztiak nik hartzen nituen, eta herritarren errespetua eta elkartasuna izan ditut beti. Urtero-urtero mediku asko Bartzelonara joaten ginen teknika eta ezagupen berriak jasotzera. Itzultzen ginenean, baina, gaitz nontzeko medikuek ezin zuten ikasitakoa praktikan jarri, arduradunek ez zietelako uzten. Nik, berriz, askatasun handia neukan lan egiteko, eta ikasitakoak zein emaitza onak ematen zituen bertatik bertara ikusi ahal izan ditut.

Denboran atzera egiten duzunean, bizipen onak ala txarrak etortzen zaizkizue gogora?

Onak, oso onak. Nire lana oso gustura egin dut eta lagun handiak egin ditut. Horrez gain, herritarren errespetua izan dut, eta horrek asko esan gura dutela uste dut. Argi dago, baina, urte gogorrek ere izan ditudala. 30 urtean bi lagun hil zaizkit ebakuntza-gelan, eta horiek ez ditut sekula ahaztuko.

Erretiratzeko ordua iritsi zaizu. Gustura?

Bai, azken baten, urte asko eman ditudalako lanean. Hala ere, pena ere ematen dit, datozen urteak zirujau lanetan ibiltzeko oso politak izango direlako. Teknika eta ezagupen berriak ditugu, eta teknologia ere aurreratu da. Horregatik ematen dit pena apur bat, lanerako urte interesgarriak datozelako.

Lankideek agur-afaria egingo dizute gaur.

Bai, eta asko poztzen naiz. Lankideekin harreman ona izan dut beti, eta keinu polita dela uste dut. Eguneroko lanean beti izaten genituen arazoak, baina kontu puntzeko modukoak ziren denak. Gainera, argi esan behar dut ospitalean uzten ditudan lankideekin ederto egiten dutela lan.

OSOKO BILKURA/ Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean

Eztabaida luze eta gogorrak asteleheneko batzarreko zenbait gai lantzeko orduan

UBANE MADERA

Osoko bilkura mamitsua izan zuten astelehenean zinegotziek. Landu beharreko gaien artean, Gelmarekin hitzarmena sinatzea, Haurreskolak partzuergoan sartzeko proposamena eta zenbait mozio. Onartu egin zituzten gai gehienak.

Hamalau gai zituzten zerrendan zinegotziek batzarrean lantzeko. Horien artean, besteak beste, Kutxarako udal ordezkariek izendatzeko puntua eztabaidatu zuten. Alkateak jakinarazi zuen lehena-gotik izendatu zituztela ordezkariorik, EAJko bi zinegotzi. PPK eta PSE-EEK, aldiz, kontra egin zuten, esanez halako izendapenak alderdi bakoitzaren zinegotzi-kopuruaren arabera egin behar direla, hortaz, EAJri zinegotzi bat dago kiola eta PSE-EEri beste bat. Hala, proposatu zuen Agustin Ugarte jeltzalearekin batera Matilde Martin izendatzea. Onartu egin zuten proposamena PSE-EEren, EBren eta PPren aldeko botoekin eta Aralarren abstentzioarekin.

Bestalde, Biteriko lur azpiko aparkalekua egiten duten bitartean, sortuko diren eragozpenak zelanbait saihesteko, zinegotziek zera onartu zuten: Laubideko aparkalekua 20:00etatik 00:00etara eta 08:00etatik 09:00etara 0,10 euro kobratzea; eta 00:00etatik 08:00etara, berriz, 0,05 euro.

EGITAMU OROKORRA ETA GELMA

Horrez gainera, eztabaida luzea izan zuten zinegotziek Egitamu Orokorrarekin lotutako gaiekin. Batetik, Egitamua aldaketan dokumentua onartzea proposatu zuten. Ezker Batuak babes ofizialeko etxebizitza gehiago erai-



Gelmarekin hitzarmena sinatzea onartu zuten; horren arabera, 418 etxebizitza eraikiko dituzte han; 125, babes ofizialekoak.

kitzearen alde egin zuen; eta Aralarrek adierazi zuen zenbait eremutan lurzorua hobeto aprobetxatu beharko luketela etxebizitzak egiteko.

Bestetik, Gelmarekin lotuta, lantegiarekin hitzarmena sinatzea onartu zuen udalbatzarrak, EBren kontrako botoekin. Hitzarmen horren arabera, bi baldintza bete beharko ditu Gelmak: batetik, fabrika berria eraikitzea Nafarroa etorbidean, beste lantegia duen lekuan. Hala, fabrika berriarekin ziurtatuko dituzte 200 langileen lan-

postuak. Eta bestetik, Gipuzkoa etorbidean etxebizitzak egitea: guztira, 418; horietatik 125, babes ofizialekoak. Era berean, Gelmaren eraikin nagusia Udalarendako izango da, babesteko.

Gelmak urtebetean eraiki beharko du fabrika, eta leku aldaketa egin eta gero hasiko dira etxebizitzak eraikitzen. Bukatzen dutenean, han, iparraldean etxebizitzak izango dira, ertzain etxeraino; eta Nafarroa etorbidean, lantegia.

Ezker Batuak gogor kritikatu zuen hitzarmena. "Txapuza

juridiko izugarria" dela adierazi zuen Ander Rodriguez zinegotziak. Besteak beste, esan zuen hitzarmenak ez duela ziurtatzen dirua hartu eta gero Gelma ez denik Arrasatetik joango eta langileak kalean geratuko. Diru konpuestan, esan zuen lurzoruaren kalifikazio aldaketaren ondorioz Gelmak dirutzar izugarria irabaziko duela (21 milioi euro) eta Udalak, aldiz, dagokiona baino gutxiago hartuko duela. Era berean, esan zuen gune hark guztiak babes ofizialeko etxebizitzak egi-

teko izan behar zuela hasieran, eta orain ez dela hala izango.

BAI HAURRESKOLARI

Bestelako gaien artean, berri pozgarria hartu zuten batzarreraren joan ziren Goieskolako ordezkariek. Izan ere, makina bat buelta eman eta gero, udalbatzarrak baiezkota eman dio Haurreskolak partzuergoan sartzeari. Horrek esan gura du Bedoñaben 0-2 urteko hezkuntza eskaini ahal izango dutela; ahal izanez gero, datorren urtetik aurrera egingo zutela jakinarazi zuten. Hala, aho batez onartu zuten proposamena.

URKULU ETA MANU AZKARATE

Bukatzeke, pare bat mozio eztabaidatu zituzten. Batean, Aralarrek Urkulu Habitat Alternatiboa izeneko egitasmoa bertan behera uzteko eskatu zuen. PSE-EEK eta PPK eskaeraren kontra bozkatu zuten, baina gainerakoek alde; hortaz, onartu egin zuten.

Eta beste mozioan, EAJk Manu Azkarate presoaren gaineko mozioa aurkeztu zuen. Haren gaixotasuna sendaezina dela eta, presoaren askatasuna eskatu zuten, eta familiari elkartasuna adieraztea. PSE-EEK eta PPK gogor egin zuten kontra. Besteak beste, PSE-EEK legeak dioena bete behar dela esan zuen, gainerakoek egiten duten moduan, eta gaineratu zuten hemen ez dagoela preso politikorik, gaizkileak eta terroristak baizik. EAJ Batasuna baino gogorragoa dela gaineratu zuen. PPK preso politikorik ez dela existitzen esan zuen, eta, besteak beste, Ortega Lararena gertatu zenean Udalak ez zuela elkartasunik erakutsi gogorarazi zuen. Mozioa onartu egin zuten EAJ, EA eta Aralar taldeen botoekin.

San Josepe harrobiko langileek iritzia kaleratu dute, baita PSE-EEK ere

U.M.

San Josepe harrobia ixteko zenbait alderdik eta taldek egindako eskaera dela eta, harrobiko langileek euren iritzia kaleratu dute. PSE-EEK, berriz, EBri eta Aralarri eskatu die gezurrik ez esateko.

San Josepe harrobiko langileek bi prentsa ohar kaleratu dituzte. Bata 14 langilek sinatu dute. Harrobiaren esplotazioaren luzapenaren alde egiteko eskatzen diote udalbatzarrari, euren lanpostuak ez galtzeko.

Beste prentsa oharra gainerrako bost langileek sinatu dute.

Haiek diote harrobia itxi arren langileen erdiak lanean jarraituko duela, hormigoi-lantegian. Eta gainerako langileen iritzia erdibituta dagoela. Prentsa oharren arabera, langile batzuek lanpostuak utzi gura dituzte, osasun arazoak dituztelako —bik silikosisa dute—. Era berean, diote zenbait langile harrobia ixteko zain zeudela, kalte-ordainak kobratzeko, eta orain, harrobiaren jarduna luzatzen badute, eta langile horiek euren lanpostuak uzten badituzte, kalte-ordainak ere galduko dituztela. Gaineratzen dute harrobiaren jarduna beste bi urtez luzatzea ez dela konponbidea eta Udalarri eskatzen

diote enpresatik joan gura duten langileen alde egin dezala, kalte-ordainak kobratzeko.

PSE-EE ALDERDIAREN IRITZIA

PSE-EE alderdiak, berriz, gai berarekin lotuta prentsaurrekoa eskaini zuen eguaztenean. EBri eta Aralarri gezurretan ez jarduteko eskatu zien. Era berean, jakinarazi zuen PSE-EEK zera eskatu diola Udalarri: gai horrekin lotutako erabakirik ez hartzeko harik eta beharrezko txosten guztiak esku artean izan arte. Eta gaineratu zuten eurek dakitenez harrobiko langileek ez dutela euren lanpostuak galtzeko neurririk hartzerik nahi.



PSE-EE alderdiak eguaztenean eman zuten harrobiaren gaineko prentsaurrekoa.

NEREA ZUBIETE

GIZARTEA/ Maskulinitatea aztergai, martxoaren 13an

Maskulinitate ereduak eta sexismoa aztertuko dituzte

UBANE MADERA

Xabier Odriozola donostiarrak maskulinitatearen gaineko lantegia emango du martxoan, gizona zuzendako. Irakaslea da, eta zenbaitzuek maskulinitatean aditutzat hartzen dute, nahiz eta Xabier guztiz bat etorri ez. Martxoaren 13an hasiko da ikastaroa.

Lantegiaren helburua da gizonek elkartu eta sexismoaren gaineko azterketa egin. Besteak beste, zalantzan jarri gura dituzte "gizarteak inposatutako maskulinitate ereduak". Era berean, norberaren esperientziatik eta iritzi trukaketatik abiatuta, eredu berriak lantzea da asmoa. Xabier Odriozolak zera adierazi digu: "Gizonezkoak aldatu beharra daukagu sexismoa ezabatu nahi bada".

GIZONEZKOEI ZUZENDUTAKOA

Lehen esandako moduan, ikastaroa gizona zuzenduta dago. "Sexismoak bi generoei kalte egiten digula ikusten duenarentako", Xabier Odriozolaren esanetan. Hala, helburu hori abiapuntu moduan hartuta, besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: gizona zuzendutako, gizonen benetako izaera, rolen eta jarren azterketa, homofobia eta homosexualitatea, maskulinitate eredu berria eta giza balore berriak. "Hasieran aztertuko dugu sexismoa nola bideratzen dituen gizonak rol kaltegarri eta baztergarriak betetzera eta horrek zein eragin ezkorra duen emakumeengan eta gizona zuzendutakoan".

Horren harira, Xabier Odriozola hizlariak adierazi digu maskulinitatearekin lotutako aurreiritziak daudela gizartearen eta haiei aurre egin beharra dagoela: "Aurreiritziak dira gizarte zail-



Maskulinitatearen gaineko aurreiritziak zalantzan jarriko dituzte lantegian.

"Maskulinitateak laguntzen du generoen arteko bereizketari eta zapalketari eusten"

tasun eta ezintasunean izoztua mantentzeko etsairik nagusiengatik. Maskulinitateak laguntzen du generoen arteko bereizketari eta bien zapalketari eusten. Aldatu beharra dago". Hori lortzeko, besteak beste, informazio

zuzena behar dugula dio Xabier Odriozolak: "Informazio zuzena behar dugu. Gero aurreiritzi zahar eta ezkorrak bota eta lekua egin iritzi eta ideia zuzenei".

PLAZA MUGATUAK

Ikastaroaren lehen saioa martxoaren 13an, zapatua, izango da; 10:00etatik 13:30era. Plaza mugatuak izango ditu, hortaz, interesa izanez gero, komeni da izena lehenbailehen ematea. Azkeneko eguna martxoaren 11 da. Emakume Txokoan eman behar da izena, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00ak bitartean, edo 943 79 41 39 telefonon.

Datorren astean ospatuko dute aurtengo Zuhaitz Eguna

U.M.

Ingurumenarekiko eta naturarekiko errespetua eta erantzukizuna suspertu nahian, Zuhaitz Eguna ospatuko dute datorren astean. Era berean, biodibertsitatearen gaineko erakusketa izango da.

Aurten ere, Garagartzan ospatuko dute Zuhaitz Eguna. Martxoaren 5ean izango da eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle guztiak eta gura duten erretiratuak daude ekimenera gonbidatuta. Zuhaitz landaketa bera 11:00etatik 11:30era izango da. Ikasleek 10:00etan elkartu beharko dute Uribe auzoan. Antolatuzaileek gomendatuta, oinetako egokiak eramatea komeni da, mendian ibiltzekoak.

Guztira, 431 zuhaitz landatzea da asmoa. Landatu beharreko gunearen ezaugarriak kontuan hartuta aukeratu dituzte zuhaitzok. Hala, 250 gerezio sartuko dituzte, batetik, arbola horren loraldia oso ikusgarria delako, eta bestetik, txoriak eta erakartzeko, gerezioaren fruituekin. Horrez gainera, hezetasun

handien dagoen lekuan 50 lizaintzat hartuko dituzte. Haritzak ere sartu nahi dituzte, 86, hain justu; edozelan ere, antolatuzaileek jakinarazi digute oraindik erdutela haritzik lortu, oso zaila da eta. Bukatzeko, landaketa egiteko aukeratu duten guneei batetik goi tentsioko kablea pasatzen dela kontuan hartuta, erabaki dute han landare txikiak sartzeko. Gorostiak, gurbitzak eta hurritzak aukeratu dituzte, halakoak galtzear daudelako. Bakoitzetik 15 landare sartuko dituzte.

Landaketaren ostean, parte hartzaileei hamaiketako eta opea emango dizkiete eta ikasleek gelek Arrasateko Txoko Naturak eta Izaki Bizidunak izeneko liburuak jasoko dituzte.

BIODIBERTSITATEA IKUSGAI

Era berean, ingurumenaren aldeko jarduna egun bakarera er mugatzearen, erakusketa ere antolatu dute. Biodibertsitatearen izena dauka eta Gipuzkoako Entomologia Elkarteak eta Galemys enpresak antolatu dute. Monterronen izango da, martxoaren 1etik 15era, 18:00etatik 20:00etara.



Iaz ere Garagartzan landatu zituzten arbolak Zuhaitz Eguna ospatzeko.

Telekomunikazioarekin lotutako kableen gaineko irizpideak zehaztuta

UBANE MADERA

Azkenaldian, herriko etxeetan telekomunikazioetarako kableak sartzan dabilzala-eta, Udalak lan horiek modu egokian egiteko irizpideak zehaztu ditu. Horren arabera, ahal bada, halako hariak eta etxeen barruko aldetik sartu beharko dira.

Herriko ia etxebizitza gehienetan sartzan dabilzala edo sartuko dute kablea telekomunikazio zerbitzuetarako. Esaterako, orain, Arrasaten telebista zerbitzua sartzan dabilzala Euskaltelekoak. Hala,

kable horiek etxeen barruko aldetik edo kanpoko aldetik sartu behar diren erabakitzeke, froga egin zuen Udalak Grupo San Juango, Nafarroa etorbideko eta Zaldibar kaleko etxeetan. Han, kablea etxeen kanpoko aldetik sartu zuten.

IRIZPIDEAK ZEHAZTUTA

Orain, emaitza ikusita, eta herriko etxeen estetika zaindu nahian, kable horiek sartzeko irizpideak zehaztu ditu Udalak. Horren arabera, ahal den guztietan kableak etxeen barruko aldetik sartu beharko dira. Hori egiteko zenbait aukera aipatzen ditu Udalak: etxeek hodiak sartzeko berez izaten dituz-

ten lekuetatik; igogailuaren zuloatik (bereziki, igogailua ipini behar duten etxeetan); eskaileretatik, edo barruko aldeko patioetatik. Aukera horietako bat bera ere ez bada posible, orduan ipini ahal izango da kablea etxeen kanpoko aldetik. Betiere, kanpoko aldean egoten diren tutuen artean ezkutatuta, edo etxearen konfigurazio arkitektonikoan barneratuta.

Irizpide horiek bete egin behar dira, nahiz eta kablea ipintzen dabilen enpresak ezin daitekeela esan. Kasu horretan, auzokideek esan beharko diote aipatutako baldintzak derrigor bete beharko dituela.

Herriko Plazarako eta udaletxerako argi berriak

U.M.

Herriko Plazako argiteria berritu egin gura du Udalak. Horrez gainera, udaletxeko aurrealdean apain-argiak ipini gura ditu. Oraingo astean, lanok adjudikatzeke plegua onartu dute.

Herriko Plaza Arrasateko alde zaharraren erdialdean dagoela-eta, Udalak erabaki du hango argiteriaren baldintzak hobetzea. Asmoa da orain dauden kale argiak mantentzea, baina haien baldintzak hobetzea. Esaterako, ematen duten argi mota egokiagoa izan dadin. Hala, berritzeke

lanok egin ostean, seguru aski aldatu egingo da plazako kale argiek ematen duten argiaren kolorea.

APAIN-ARGIAK, UDALETXERAKO

Herriko plazako argiteriaren lanekin batera, udaletxerako XVIII. mendeko aurrealdeko nabarmentzeko eta eraikuntza bizitasuna emateko, udaletxerako kanpoaldean apain-argiak ipini gura du Udalak.

Hain zuzen ere, oraingo astean, aipatutako proiektu biak adjudikatzeke baldintzen plegua onartu du Gobernu Batzarrek. Horren arabera, ia 60.000 euroko aurrekontua izango da lanok egiteko.



ARRASATE PRESS

Domekan, urrun joan barik, Arrasateko inguruetan dauden mendi eta txokoez gozatu ahal izango dute.

MENDIA

Besaidek Gipuzkoako Bira eta iraupen-eski ikastaroa antolatu ditu

Horrez gain, Formigalera eski alpetarra egiteko irteera ere egingo dute oraingo asteburuan

XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan hasiko dute Besaidekoek Gipuzkoako Bira. Lehenengo etapa egingo dute domekan, inguruko mendietan. Horrez gain, iraupen eskia egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute datorren astebururako.

Besaide Mendizale Elkarteak Gipuzkoako Bira egiteko apustua egin du. Egitasmo horri esker, izena ematen dutenek Gipuzkoako mendi eta txoko ederrenak bisitatu ahal izango dituzte. Domekan egingo dute lehenengo irteera. Gatzagainen hasi eta Jarindo, Kurtzeta, Untzilla, Suña eta Gesa-

libartik pasatu eta gero, Arrasate-dera itzuliko dira.

Ikusten denez, lehenengo itzulia inguruotan egingo dute. Hasteke modu ona da hori.

IRAUPEN ESKIKO IKASTAROA

Bestalde, Besaidek iraupen eskia egiten ikasteko ikastaroa antolatu du martxoaren 6 eta 7ko astebururako. Irteera Somportera egingo dute (Jacatik 30 kilometrorra). Leku aproposa da, iraupen eskia egiteko zirkuitua dago-eta.

Ikastaro horretan esku hartu gura duenak martitzenean edo eguaztenean eman beharko du izena Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:30ak bitartean. Jakin, gainera, eski monitorea eta

eskiak alokatzeko aukera izango dela. Irteera horretan esku hartzeko, Besaideko bazkide ez direnek 65 euro ordaindu beharko dituzte; bazkideek, berriz, 60 euro. Prezio hori gutxi gorabeherakoa da, baina ez da alde handirik izango. Prezio horren barruan daude materialaren alokairua, aterpe-txea erdi pentsioan, garraioa eta eski irakasleak. Kontuan hartu izena emateko orduan 30 euro aurreratu beharko dituzuela.

Iraupen eskiko ikastaroa, baina, ez da Besaidek eskaintzen duen eskia egiteko aukera bakarra; izan ere, astebururo egiten dute eski alpetarra egiteko txangoa. Informazio zabalagoa 943 77 30 66 telefonoan.



Asteburuan egingo dute skate eskola

Arraska taldeak skate gainean ibiltzeko eskola antolatu du biharko. Goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko ordu bata arte, skatzen nola ibili irakasten ari-tuko dira Arraskako lagunak. Topalekua Musakolako kiroldegian izango da, eta, besteak beste, Eder Antia, Largo eta Jese Blanco ibiliko dira irakasle lanetan.

Skate gainean zabiltzate-nok seguru izango duzuela zer ikasi, eta bihar duzue horretarako aukera aproposa; baita dakizuen erakusteko ere.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Iriztu Taberna	5-3
Alpargat Estutu! - Billy & The Cowboys	5-5
Abokajarro - You Know!	3-6
Aloña Taberna - Rayo Aldeano	10-4
Saukelu Scream - AT Celaya	2-9

PARTIDUAK

OTSAILAK 28, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: AC Surcos - Aloña Taberna	Antolat.
12:00: Iriztu Tab. - Dream Team	Antolat.
13:00: Dribling - AT Celaya	Antolat.
15:50: Saukelu Scream-Goma2	Antolat.
17:00: Etxerat - Abokajarro	Antolat.

OTSAILAK 29, DOMEKA. EPAILEAK

11:50: Lasagabaster - Rayo Aldeano	Antol.
13:00: You Know! - Tomahawk	Antolat.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Betrayer	19	12
2. You Know!	18	12
3. Iriztu Taberna	18	12
4. Saukelu Scream	14	12
5. Aloña Taberna	14	12
6. Rayo Aldeano	14	12
7. Abokajarro	13	12
8. AT Celaya	13	12
9. Alpagat Estutu!!!	12	12
10. Bikain Akademia	10	12
11. Billy & The Cowboys	9	12
12. KPPC	2	12
13. Koka Juniors	0	12

B MULTZOA

	P	J
1. Dribling	20	11
2. Etxerat	18	11
3. Lasagabaster	15	11
4. AC Surcos	14	11
5. Goma-2	12	11
6. Dream Team	11	11
7. Tomahawk	11	11
8. Speed Boys	10	11
9. Errasti Kristaldegia	9	11
10. Fuxion	9	11
11. El Ekipo A.	3	11
12. Whiskeria	0	11

BIGARREN FASEA HASIKO DUTE BIHAR

A MULTZOAN AT CELAYA IZAN DA AZKEN SAILKATUA

Joan den astean jokatu zuten A multzokoek lehenengo faseko azken jardunaldia, eta sailkatzeko aukerak zituzten taldeetatik, Alpagat Estutu geratu da kanpoan. Oraingo asteburuan hasiko duten bigarren fasean hainbat arau berri izango dira: epaile lanak egiteko ardura txapelketako antolatzaileek izango dute, eta hori taldeendako albiste ona da. Alde horretatik, aurten ere gauza bera eskatzeko beharra ikusten dugu: borondatez lanean dabilen jendea izango da epaile lanetan, horrenbestez, kontuz ibili protesta egiteko orduan eta esan beharrekoak ondo neurtu. Argi dago, baina, askorentzat hori asko eskatzea dela. Horrez gain, jakin, hemendik aurrera atezainek argiago ibili beharko dutela. Taldekideek pasea hankaz egin ez ezin izango dute baloia eskuekin hartu, eta alboko sakeetan ere kontuz ibili beharko dute, area barrutik egindakoak ere ezin izango dituzte-eta eskuekin hartu. Azkenik, Betrayer taldeko jokalaririk batek ezin izango du bigarren faseko lehenengo partidua jokatu, zigortuta dagoelako.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Trintxerpe Preferente. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.	Atco. San Sebastian - Arrasate Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Aieten.
Mondra - Ordizia Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.	Arrasate - Araneta Kadeteak. Zapatuan. 18:00. Musakolan.
Beraun Berri - Arrasate Big. Gazteak. Zapatuan. 19:15. Erreterian.	ESKUBALDIA
Arrasate - Herrerako Sporting Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.	Pulpo - AGR Arrasate Udaberri Txap. Zapatuan. 16:00. Lubakin.
San Patricio - Arrasate Big. Kadeteak. Domekan. 11:30. Donostian.	Arrasate B - Sanio Elgoibar Udaberri Txap. Zapatuan. 17:30. Iturripen.
Oiartzun - Arrasate Infantilak. Zapatuan. 11:30. Ugaldetxon.	Urnietako - Arrasate C Udaberri Txap. Domekan. 11:30. Kiroldegian.
Salva Kirol Elkarte - Mondra Neskak. Zapatuan. 12:00. Salvan.	Yurola Lazti - Gatz Museoa Jakion Kadeteak. Zapatuan. 16:15. Ispillan.
Arrasate - Aretxabaleta Alebinak. Domekan. 11:15. Elgoibar (Mintxetan).	Gatz Museoa Jakion - Donibane Gazteak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

SASKIBALDIA

Beasain - Ointxe Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 18:30. Antzizarren.	ERRUGBIA
	Arrasate - Gaztedi Seniorrak. Domekan. 12:00. Garagartzan.
	Durango Arrasate Kadeteak. Domekan. 16:00. Durangon.

FUTBOLA

Trintxerperen kontra Atxabalpen: otsaila ezin da joan partidurik irabazi barik

Mondra zortzigarren postuan dago eta Trintxerpe hamalagarrena da; talde horien artean bi puntuko aldea baino ez dago

XABIER URZELAI

Mondra taldeak dagoeneko bost aste daramatza irabazi barik. Ez gara aspertuko esaten lehen gauzak ondo egin bazituzten orain ere ondo egiteko gauza direla. Talde makalek badakite non egon behar duten. Mondra goialdean egoteko gauza izan da, eta hori da bere lekua.

Bolada txar batek eragin handia izan dezake. Baina, hori baino ez da, bolada txar bat. Mondrak bost aste daramatza bolada txarrean, baina norgehiagoka bat irabazteak gauzak bere onera ekar ditzake, edo bolada txarrekin amai dezake, behintzat. Talde makalek, postu guztietan jokalaria muga tuak dituztenek, badakite beheko postuetan egin beharko dutela borroka. Goialdean egoteko gauza direla erakutsi dutenek, berriz, argi izan behar dute zein den beraien lekua.

Lehenengo itzulian kontra-riok argi zuten Mondra erre-

gionaletik iritsi berria zen taldea izanda ere, talde sendoa zela eta gauzak behar den moduan egiten zituztela. Aspaldian ez ditu Mondrak gauzak behar den moduan egin, baina taldea bera da. Horrek esan gura du bolada txarra gainditzerakoan lehenengo joko eta emaitzak etor daitezkeela.

TRINTXERPE BISITARI

Etiket kanpo irabaztea zaila da, baina oraingo asteburuan Mondrak etxean jokatu du, Atxabalpen. Hain zuzen ere, Trintxerperen kontra jokatu du Arrasateko taldeak, eta sailkapenean sei postu atzerago bada go ere, bi taldeen artean alde txikia dago; bi puntu baino ez.

Oraingo egunotan egin duen eguraldia ikusita, argi dago bihar ez duela ondoen jokatu duenak irabaziko: bihar, indarrez, gogoz eta konbentzimenduz jokatu duenak irabaziko du; Atxabalpe futbol zelaia baino gehiago borroka-gune izango delako. Eta, etxean jokatu Mondrari ezin dio borrokan inork irabazi.



Joan den astean, Lesakan, 3-1 galdu zuen Mondrak. Atxabalpen jokatu dute oraingo astean, eta horretaz baliatu behar dute.

FOTOKIROLA



Igoera fasean zerbait egiteko, domekan irabazi egin behar!

Arrasate Errugbi Taldeak gaizki hasi du goera fasea. Jokatu dituzten bi partidua etxetik kanpo jokatu dituzte, eta biak galdu dituzte. Gaztediren kontrako norgehiagoka parekatua izan zen, baina joan den astean Santanderren Arrasatek ezer gutxi egin zuen. David Jauregik jokalaria izan zituen eskura, eta multzoko talde ahulenaren kontra jokatu bazuten ere, Santanderko taldea gehiago izan zen. Lehenengo bi partidua galdua, Arrasatek etxean geratzen zaizkion bi partidua irabazi egin behar ditu. Gaztedi izango da oraingo domekan Garagartzan, eta norgehiagoka gogorra izango bada ere, Arrasatek badaki gasteiztarrei irabaztea zer den. Horretarako, baina, joan den astean baino jokalaria gehiagok jokatu beharko dute. /X.U.

Ointxeok taldearen bolada onaren gainean eztabaidan

X.U.

Ointxe Arrasatek zazpigarren garaipena segidan lortu zuen joan den astean. Asko dira horrelako bolada onik gogoratzen ez dutenak, eta horren harira eztabaida polita izan dute oraingo astean.

Taldea bolada onean dabilela eta denboran atzera egin dute Ointxe taldekideek. Arrasateko taldeak iguera fasean jokatu dituen zazpi partidua irabazi egin ditu, eta taldeak lehenengo ere horrelako bolada onik izan ote duen zalantza zegoen.

Berehala etorri da erantzuna, izan ere, orain dela urte batzuk Arrasateko saskibalo taldean ibili ziren jokalarien esanetan oraingo bolada ona da, baina ez orain dela urte batzuk izan zuten baino hobea.

ZORTZI URTE ATZERA

Arrasateko jokalaria ohiek ondo azaltzen dute orain dela zortzi urte Arrasateko taldea Liga Nazionaleko bigarren mailako txapelduna izan zela. Orduan, Arrasateko taldeak lehenengo itzuliko norgehiagoka guztiak irabazi zituen, baita bigarren itzuliko lehenengo partidua ere. Guztira 13 edo 14 garaipen izan

ziren jarraian. Eta, jokalaria berehala esaten dutenez, komeni da horrelakoak gogoratzea. Azken batean, ondo egindakoak berehala ahazten ditugulako, eta gaizki egindakoak urte askoan izaten ditugulako gogoan. Horregatik, komeni da gogoratzea iraganen Arrasateko saskibalo taldea zer egiteko gauza izan zen. Eta, beste gauza bat: oraingo taldea osatzen duten jokalariek erronka polita dute aurretik: orain dela zortzi urteko bolada on hura hobetzea, alegia.

ORAINGO ASTEBURUAN BEASAINERA

Oraingo asteburuan Ointxe Arrasatek derbi interesgarria jokatu du Beasainen kontra. Lehenengo itzuliko azken partidua izango da; horrek esan gura du Ointxek partidua irabazten badu multzoko talde guztiei irabazita izango dela.

Hori, baina, ez da erraza izango; izan ere, ez da ahaztu behar Arrasateko taldea oso jokalaria gutxiarekin dabilela jaitsiera faseari aurre egiten. Min hartu duten azken jokalaria Txitxo Ziarsoleda da, eta baja garrantzitsua da. Horregatik dauka meritua Arrasateko taldearen bolada onak; ia ordezko jokalaria barik jokatu dabilelako. Ez ahaztu, gainera, helburua mailaz ez jaistea dela.

ZINEMA/ Amaia Udal Antzokiko film eskaintza

Inmigranteen bizipenak eta abenturazko istorioak uztartuko dituzte film eskaintzan

IKER BARANDIARAN

Amaia Udal Antzokiko film eskaintzak aurrera jarraitzen du. Asteburuko zineklubeko filma eta film komertziala, biak hala biak, ospe handia dute, eta ziurrenik herritarrek ondo erantzungo dute. Zapatuan eta domekan, umeendako *El cid, la leyenda* emango dute.

Gaur, egubakoitza, zineklubean, *Las mujeres de verdad tienen curvas* filma emango dute, 20:30ean. Patricia Cardoso kolonbiarrak zuzendu du, eta nazioartean oso harrera ona izan du.

Filma izen bereko antzezlanen oinarrituta dago. Josefina Lopezek idatzi zuen, bere bizipenetan oinarrituta. Lopezek Los Angelesko tailer baten lan egin zuen agiri barik, eta horixe kontatu dute antzezlanean eta filmean. Inmigranteek dituzten arazoak umorearekin kontatuko dituzte.


TOM CRUISEN AZKEN FILMA

Bihar, zapatua, eta domekan, *El último samurai* filma emango dute

19:00etan eta 22:00etan; baita astelehenean ere, 20:30ean. Edward Zwick estatubatuarrek zuzendu du filma. Abenturazko filma da. Ameriketako Estatu Batuetako mendebalaren galera eta Japoniako samuraien desagertzea konparatzen ditu. Nathan Algren amerikarrak (Tom Cruise) samuraiei lagunduko die borrokan, biziraun dezaten. Filma Oscarretarako izendatu dute. 144 minutu irauten du.

Zapatuan eta domekan, *El cid, la leyenda* filma emango dute, 17:00etan. Animaziozko filma da, 82 minutu irauten du, eta Jose Pozó zuzendariak egin du. Rodrigo Diaz de Vivar zaldunaren abenturak kontatzen ditu. Musulmanen aurka borrokan egin behar du. Aktore ezagunek jarri diete ahotsa pertsonaiei: Manel Fuentesek, Natalia Verbekek eta beste batzuek.

Datorren egubakoitzean, martxoaren 4an, *Extranjeras* film dokumentala emango dute, 20:30ean. Helena Taberna zuzendariak egin du eta gidoia ere berak idatzi du. 36 emakume inmigranten bizimoduak kontatuko ditu.



El último samurai filma abenturazkoa da, eta Tom Cruise da protagonista.

ARRASATE PRESS



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73

ARRASATE

Jose Luis Iñarra pasealekua
posta-e: mercedikas@terra.es

Haur Hezkuntza
0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza



Haur Hezkuntza
2-6 urte



eredua **D**



DBH

2004-2005

ELKARRIZKETA

JULEN RIBAS/MARRAZKILARIA

“Bada komikigintzari merezitako prestigioa emateko ordua”

ARRASATE IRRATIA/I.B.

Julen Ribas arrasatearra ezagun bilakatu da Aratusteetako kartela egin duelako. Aspalditik dabil marrazkigintzan, eta orain dela gutxi, Frantziako argitaletxe batekin hiru komiki bilduma egiteko kontratua sinatu du.

Aspalditik marrazten duzu?

Bai, oso txikitatik, baina hain serio eta profesional moduan, orain dela hiruzpalau urte hasi nintzen. Arte Grafikoetako ikasketak egin nituen, eta marrazkilaria moduan ogibidea aurkitu guran nabil.

Eta badirudi horren bidean zabilazala...

Bai. Orain dela gutxi, argitaletxe batekin kontratua sinatu dut, eta komiki batzuk egin beharoko ditut. Horrekin, hiru urterako lana daukat. Urtero bilduma bat argitaratu behar dugu. Istoria eginda emango didate, eta nik hitzak marrazki bilakatu beharoko ditut.

Halako lanak egiteko, irudimen handia edukitzea ezinbestekoa izango da...

Bai, eta nik irudimen handia daukat. Egia esanda, hori oso txikitatik landu dut.

Komiki asko irakurriko dituzu, ezta?

Bai, etxean komiki mordoak ditut, kiloka. Gehienbat Europako komikiak, Frantziako argitaratzen direnak, jatorrizko bertsoan.

Eta zelan lortu duzu bildumen enkargu hori?

Lagun batzuen bitartez, harreman batzuk egin nituen, eta Frantziako komiki argitaratzaile bat ezagutu nuen. Harremanetan izan gara, e-postaren bitartez. Nik egiten dudana asko gustatu zaio, eta orain dela pare bat aste, kontratua bidali zidaten Frantziako argitaletxe batetik.

Zergatik Frantziako enpresa batekin, hemen ez dagoelako argitaletxerik ala horrela egokitu delako?

Ni hemen ez naiz askorik aha-legendu, baina dirudienez hemen (Espainiako Estatuan) ez dago marrazkigintzan eta komikietan lan egiteko merkatu handirik. Frantziako, AEBetan eta Japonian merkatu indartsuagoak daude, eta nik Frantziakoan sartzeko aukera izan dut. Erronka handia da niretzat.

Eta hasi zara lan horretan dagoeneko?

Bai. Gidoilaria aurkeztu zidaten, eta ordutik hona, pertsonaiak bilatzen eta kontzeptuak egiten ibili naiz... Hiru bat hilabete daromatzen lan hori egiten.



“Aurtengo Aratusteetako kartela iaz egin nuen, baina epezkantpo ibili nintzen”

Aurrera dezakezu gutxi gorabehera zertan datzan istorio hori?

Oraindik ezin dut askorik esan, baina historia fantastikoa da, XIX. mendeko Londresen girotuta. Estetikari *Sherlock Holmes*-en garaiko istorioen antza dauka. Lorden itxurako pertsonaiak agertuko dira, kapela luzeekin, ondo-kapelekin... *Sherlock Holmes*, *Oliver Twist* eta halakoen filmak ikusten nabil horren gaineko inspirazioa hartzeko eta, bide batez, ambientazio egokia aurkitzeko.

Sekula egin duzu halako marrazkirik?

Ez, halako lan garrantzitsurik, behintzat, ez dut orain arte egin. Niretzat erronka da, baina

“Etxean komiki mordoak ditut, kiloka, eta gehienak jatorrizko hizkuntzan daude”

erronkazalea naiz eta proba egin gura dut.

Noizko egin beharko duzu?

Lehenengo bildumaren entrega-epea abenduan da. Gero, lana inprentara bidaliko dute eta agian datorren urteko urtarrilerako kaleratuko dute. Prozedura luzea dauka.

Frantziako argitaletxeko lana garrantzitsuagoa den arren, Arrasateko Aratusteetako horma-irudia zuk egin duzu. Lehen aldiz hartu duzu parte lehiaketa horretan?

Bai. Orain arte ez dut inoiz horma-irudien lehiaketetan eskurik hartu. Komikietan, ordea, bai. Emakume Sailak antolatutako komiki lehiaketan hirugarren saria eskuratu nuen.

Eta zerk bultzatu zintuen Aratusteetarako horma-irudia egitera?

Marrazki hori joan den urte-rik neukan eginda, baina iaz ez nuen izan garaiz aurkezteko denborarik, oso lanpetuta ibili nintzelako. Horregatik, aurtengo deialdiaren zain gelditu naiz, eta zorte handia izan dut.

Arkata eta ordenagailua tartekatu dituzu...

Bai, arkatzarekin hasi nintzen, baina gero marrazkia bera eskaneatu eta ordenagailuarekin jarraitu nuen. Ordenagailuak asko aurreratu dit lana.

Ordenagailua ezinbesteko tresna bilakatu da?

Ezinbestekoa ez, baina oso erreminta ona da. Ordenagailua ez da merkea, baina hori edukiz gero, ez dago ia material gehiago erosi behar (kartoi meheak, pinturak...). Lana egin eta gero, inprimatu besterik ez da egin behar. Horrez gainera, ordenagailuek atzera egiteko aukera ematen dute. Akuarela bat edo akriliko bat eskuz eginez gero, ez dago atzera egiterik. Ordenagailuarekin, ordea, bai. Hala ere, arkata garrantzitsuagoa da, eta hori ez da galduko.

Beti eramaten dituzu aldean arkata eta papera?

Eraman izan ditut, baina aspaldian ez ditut aldean eramaten. Lehen, kalean eta tabernetan marrazkiak egiten ibiltzen nintzen, baina Arrasaten lotsa pixka bat ematen dit, eta utzi egin diot hori egiteari.

Artista askok ez duzue gustuko zuen lanak erakustea...

Neuk ere ez dut gustuko. Ez zait kritikak entzutea gustatzen, ez onak eta ez txarrak. Nire lana gura duenak ikus dezala, besterik barik. Ez zait gustatzen nire lanaren gainean berba egiten ibiltzerik.

Mortadelo y Filemón-en gainean zer iritzi duzu?

Hori hemen dagoen ohitura eta kultura da. Komikien gainean berba eginez gero, *Asterix eta Obelix*, *Zipi eta Zape* eta halakoak aipatzen dituzte. Komiki horiek zaharkituta gelditu dira. Europako beste herrialde batzuetan helduek ere hartzen dituzte kontuan komikiak, eta hemen ez horrenbeste. Komikiek askoz prestigio handiagoa dute. Hori aldatzeko lan handia egin behar dugu.

Eta marrazki bizidunen gainean zer iritzi duzu?

Aurrerapausoak egin dituzte. Lehen, marrazki bizidunak umeendako ziren, eta gaur egun helduei zuzenduta ere badaude. Hala-koak ikustera behin baino gehiagotan joaten naiz.

LABUR

Gaurtik aurrera, ‘Asteon’ aldizkaria doan banatuko dugu

Gaurtik aurrera, ARRASATE PRESSEkin batera, astero, *Asteon* aldizkaria doan banatuko dugu. *Asteon* telebistaren gaineko aldizkaria da, eta Herri Komunikabideak enpresak egiten du. Enpresa hori Topaguneak eta sei komunikabidek sortu dute: horien artean, Goienak. Astero, aldizkari horren 75.000 ale banatuko dituzte: 60.000 ale, herri aldizkariaren bitartez eta gainontzekoak beste bide batzuen bitartez.

Herri Komunikabideak enpresako arduradunen esanetan, aldizkari horrek bi helburu nagusi ditu: batetik, telebistaren gaineko argitalpena abian jartzea; eta bestetik, aldizkari hori astekaria den neurrian, hamabostekariak eta hilabetekariak diren herri aldizkariari eragitea. Hau da, aldizkari horiei astekari izateko bultzada ematea.

Asteon aldizkariaren 2004ko aurrekontua 1.200.000 euro da. Hain zuzen ere, erdia, publizitatetik eta beste erdia erakunde publikoetatik eskuraturiko dute.

Astero 48 orrialde koloretan jasoko ditu irakurleak etxean, euskaraz eta doan. Astekari tematikoa da, telebista duelako gai bakarra. Horrez gain, entretenigarria, erabilgarria eta kritikoa izan gura du. Hiru atal nagusi izango ditu: lehenengoan, magazina, erreportajeak eta elkarrizketak; bigarrenan, telebistari tripak generoko aterako dizkiote, eta kolaborazioak sartuko dituzte; eta hirugarrenean, hamabi telebista kateren programazioa.

Arrasateko Musika Eskolak kontzertuak antolatu ditu

Aratusteak pasatu dira, eta azken urteotan bezalaxe, Arrasateko Musika Eskolako kideek herriko kaleak girotu zituzten. Hain zuzen ere, herriko musikariak futbol taldeen eraserkiak eskaini zituzten.

Eta datozen egunetarako kontzertu gehiago antolatu dituzte. Martxoaren 9an, tronboi, bombardino eta tuba kontzertua egingo dute Musika Eskolan. 19.15ean izango da eta Iker Olazabal izango da arduraduna.

Martxoaren 11n ere egingo da zer ikusi eta entzun. Eskolako ikasleek tronpetak eta fliskorno kontzertu egingo dute Musika Eskolan. 18:30ean izango da, eta Edorta Ayastui irakaslea izango da musikari taldearen arduraduna.

E, TXO!

LUDETEKA IBILTARIA

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria egingo du Musakolako eraikinean, San Antolinen. 11:00etatik 13:30era izango da, eta gura duten 3 urtetik 12 urte bitarteko guztiek esku hartu ahal izango dute.

MAKILLAJE ARTISTIKOKO IKASTAROA

Txatxilipurdik makillaje artistikoko ikastaroa antolatu du. Otsailaren 28an eta martxoaren 6an — biak ere zapatuak — egingo dute, 10:30etik 13:30era, AEDko txokoan,

LOR ETA ZENDU TALDEEN KONTZERTUA

Bihar, zapatua, Elorrioko Lor eta Arrasateko Zendu taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean. Lor taldeak aspaldian ospe handia hartu du, eta Zendu taldeak bere lehenetariko kontzertua eskainiko du. 22:30ean izango da, eta sarrera 3 euro da.

BEHERAPENAK LORTZEKO TXARTELAK

Bidaiatzeko asmoa duten gazteek mundu osoan beherapenak lortzeko balio duten txartelak eskura ditzakete: ikasle, GO 25 eta aterpetzekide txartelak, hain zuzen ere.

Garraio, ostatu, kirol-instalazio, museo, eta abarretan beherapenak egiten dituzte. Aterpetzekide txartela eginez gero, Estatuko aterpetxeen mapa opari egingo dute. Txartel horiek egiteko jo Gazte bulegora.

VITAL KUTXAK ARGAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DU

Gaia librea da, eta argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan aurkez daitezke. 30x40 neurrikoak izan beharko dute, argazki paperean. Maia-tzaren 31n bukatzen da lanak aurkezteko epea. Informazio zabalagoa: 945 16 21 57.

GUREGAIK/ DANTZA IKASTAROK

Lore Gazteak taldeak 'Muxikoak' eta Larrain dantza erakutsiko ditu

IKER BARANDIARAN

Lore Gazteak taldeak, Gazte Sailaren laguntzarekin, dantza ikastaroak egingo ditu martxo-tik ekainera bitartean. Aurten, **Muxikoak** eta Larrain dantza erakutsiko dituzte. Eman izena Gazte Bulegoan.

Lore Gazteak taldeak urte mordo daramatza dantza ikastaroak antolatzen. Orain arte arinarin eta fandangoa dantzatzen erakutsi dute, baina aurten aldiz erabaki dute. Taldekoen esanetan, herritarrek erromerietan beti dantza berak egiten dituzte, eta beste dantza mota batzuk erakustea erabaki dute. Bi ikastaro antolatu dituzte: batetik, **Muxikoak**. Biribilean dantzatzen dira,

Lore Gazteak taldeak erromerietarako beste dantza batzuk erakutsiko ditu

eta uneoro pausoak esan ahala dantzatu behar da. Iparraldean ezagunak dira.

LARRAIN DANTZA

Bestetik, Larrain dantzak geroago eta ospe handiagoa hartu du, eta ibarreko plaza guztietan dantzatzeko aukera dago. Mutil eta



ANDER GILLENIA

Irudian, hainbat herritar Errementari Dantza egiten.

nesken bikoteek eman beharko dute izena, dantza horren usadioak hala eskatzen duelako. Biak

hala biak martxoaren 5etik San Juanak arte egingo dituzte, egubakoitzero, 19:00etatik 20:30era.

ELKARRIZKETA/ Maialen Linazasoro

"Poesiak barrukoa ateratzen lagundu dit"

I.B.

Maialen Linazasoro arrasatearrak Euskaltzaindiaren poesia lehiaketako hirugarren saria irabazi du, DBH mailan. Maialenek 13 urte ditu, eta oso gustuko du poesia idaztea. Pozik dago sariarekin.

• Zein sari irabazi duzu?

Euskaltzaindiak antolatu duen poesia lehiaketan, DBHko ikasle mordo batek esku hartu genuen, eta neuk hirugarren saria eskuratu nuen. Sari banaketa ekitaldia martxoaren 12an izango da, eta 180 euro emango dizkidan. Oso pozik nago.

• Aspalditik daukazu idazteko zaletasuna?

Irakurtzea eta idaztea txikitatik gustatu zaizkit. Aurten hasi gara eskolan poesia idazten. Gai hori lantzen ibili gara, eta irakasleak animatuta hartu dut par-

te lehiaketa honetan. Eskerrak eman behar dizkiot irakasleari.

• Lehenengo aldia da lehiaketa baten parte hartzen duzuna?

Ez. Iaz eta aurten, Ikastolaren Egunean antolatzen duten literatura lehiaketan esku hartu izan dut, baina orain arte ez dut inolako saririk irabazi.

• Zeren gainekoa da zuk idatzi duzun poesia?


Idatzi dudak poesia *Zure besoetako babesa* izena du, eta maitasunaren gainekoa da.

• Noiz idazten duzu, triste zaudenean?

Batez ere, aspertuta nagoenean. Triste nagoenean, pozik... Poesiak asko laguntzen dit barrukoa ateratzen.

• Zein beste zaletasun daukazu?

Irakurtzea asko atsegin dut, baina poesiarik ez dut irakurtzen. Horrez gain, musika entzutea eta gitarra espainola jotzea.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Juanma Pando

PANDO ERROTULUAK

XABIER URZELAI

Juanma margolari lanetan hasi zan oin dala 15 urte. Tailerra ipiñi euen, baiñe oso gustora ez eueñez, oin dala zazpi urte rotuluekin hasi zan lanien. Lehengo lanan aldien, oin egitten dauen lana bestelakue da, askoz be kreatibuaue. Gipuzkoa etorbidien topauko dozue, Legarre pabilloien.

Ze falta jako Mondragueri?

Detalle batzuk hobeketako dauz, baiñe ondo dauela uste dot.

Eta, ze dauko ona?

Jentie, duda barik.

Ze falta jatzu zeuri?

Gauza asko esan neike, baiñe nik baiño biher haundixau daukonik be badau.

Eta, ze dauketzu sobran?

Sobran, gauza gutxi.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Braveheart / Un saco de canicas / Dire Straits.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Argentinara. Ehizan egitten eta eskietan.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Danak die gorrotagarrixek.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Klientiek.

Denpora librien ze egitten dozu?

Ehizan egin eta eskiau.

Kapritxo bat.

Afari on bat lagunekin.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Euskal Herrixe.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen ez dauela parorik.

Ze egitten dozue Pandon?

Kartelak argixekin, ibilgai-lluendako kartelak, señalizaziñuek, letrak reliebiez... Gauza asko egitten dittugu hamen.

Kartel on batek ze biher dau?



“Ze gure dauen argi daukone ez da diruei begire egoten; holakuek, baiñe, gutxi dauz”

Diseñu ona eta presupuestue eukittie.

Presupuesto txikiñekin etorten da jentie, ala?

Normalien bai. Mondraguen jentiek ez dutzo kartel on bati inportantziarik emuten. Hori bai, inportantzia emuten dutzona eta gauzak argi daukone ez da diruei begire egoten.

Egun, komertziuek traba haundixek eukitten daue kartelak ipintteko orduen.

Bai, traba larregi. Udalekuek horretan zorrotzak die, eta guri kalte haundixe egitten dusku horrek. Argi dau muga batzuk egon biher diela, baiñe hain zorrotzak izetie be ez dot ondo ikusten.

“Herrittar bat komertzio batetik pasetan danien kartelien fjetie da geure helburue”

Kartelak egitteko orduen orijinala izetie gatxa izengo da ba.

Gaur egun orijinala izetie ez da errexa, gehixena asmatute daueta. Egun ona euki ezkeru asmatu egin leike, baiñe beste batzuetan ez da asmaketan.

Azken baten, atenziñue emutie da zeuon helburue.

Bai, herrittar bat komertzio baten aurretik pasetan danien kartela ikusi daixela. Baiñe Mondraguen jentiek ez dau gure atenziñue larrei emutie.

Enpresendako kartelak egitten ibilitte, zeuona Udalatxetik ikusi biherko litzake.

Neuregatik izengo balitz...

NIREBIDAIAHURA/ Julen Mendizabal

Irlandara / 2003ko otsailetik abendura arte

J oan den astean Irlandan izan ginen, Julenekin, eta oraingo asterako hainbat gauza utzi genituen zintzilik. Hango egoera politikoaren gainean galdetu diogu Juleni, Euskal Herriak eta Irlandak antzekotasunik ba ote daukaten: “Arazo politikoak bestelakoa da, Irlandakoa askoz ere konplexuagoa da, baina oinarrian badute antzekotasuna: bi herriei autode-terminazio eskubidea ukatu diete”. Irlandan egin zituen hilabeteetan, hango bake prozesua zuzenean jarraitu zuen: “Gauza positibo asko ikusi nituen han. Batetik, azpimarratzekoa da errepublikar mugimenduak bakearekiko daukan konpromisoa, eta egiten duten lana. Gainera, hango egoera hemengoa baino askoz ere gogorragoa bada ere, bake prozesu baten alde egiteko gauza izan dira”.

“Badirudi kontraesana dela, baina hildako gehiago eta sufrimendu handiagoa izan badute ere, gutxieneko akordioa lortzeko lan egin dute”. Gauza on asko ikusi baditu ere, beste kontu batzuek pena eman diote; hizkuntzaren egoerak, adibidez. “Gaelikoa oso egoera txarrean dago, eta iparraldean bakarrik egiten dute berba. Gainera, konturatu nintzen hizkuntza minorizatuan berba egiten dugunok askoz ere sentsibilizazio handiagoa daukagula. Katalanek eta euskaldunek interes berezia jarzen genuen euren hizkuntzan, eta hori lagun espainiar batek aitortu zidan”.

Ia urtebete kanpoan egin eta gero, anekdotak erraz pilatzen dira: “Taberna batean zerbitzariak espainolez eman zizkidan eskerrak, eta ni espainola ez nintzela esan nionean, euskaraz erantzun zidan. Ikusteko moduko auzpegia geratu zitzaidan”.

XABIER URZELAI



“Arazorik ez izateko komeni da zein auzotan zauden jakitea”.

DOKE

KAFETEGIA
ETA
ARDAUTEGIA

Garibai 6. Tel.: 943 79 28 06

Ardoetan aukera zabala, bait kopatan bai botilatan:
Errioxakoa, Torokoa, Erriberakoa...
Aurkezpena eta ardo dastatzeak.

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ZAHARREN ETXETIK



Aroekin jolastearekin bat, psikomotrizitatea lantzen dute Iturbideko egoiliarrek.

Psikomotrizitatea eta oroimena lantzen dituzte Iturbide egoitzan

IKER BARANDIARAN

Astean, Iturbide egoitzan bizi diren erretiratuei bisita egin genien, eguna zelari igarotzen duten jakiteko. Egoiliarrek ondo hartu gintuzten. Azken batean, egunero, egoitzako langileak eta senideak ikusten dituzte, eta noizbehinka kazetariak euren artean egotea bada nolabaiteko berritasuna.

Iturbideko egoiliar gehienak goiz jaikitzen dira, eta eguna ariketa fisikoa eginez hasten dute. Aretu nagusira igotzen dira eta han beste mota bateko ariketak egiten dituzte. Gu izan ginen egunero aroekin jolasten aurkitu genituen. Hamazazpi bat lagun biribilean jarri ziren, eta erdiko pibote baten aroa zintzilikatzen jolastu ziren.

PSIKOMOTRIZITATEA LANDU

Ariketa horien helburua da psikomotrizitatea lantzea. Horretarako, aroez gain, birlak, baloia, pilotak eta bestelakoak erabiltzen dituzte. Ahal den neurrian,

begiraleek gura dute erretiratuek eskuetako trebeziarik ez galtzea eta mugikortasuna lantzea.

Horrez gain, batzuetan musika jotzen ibiltzen dira: danborrada egin izan dute, eta pandoretak ere erabili izan dituzte.

Erretiratuek aroaren ariketa oso kontzentratuta egin zuten.

Arratsaldeetan, bingoa

Iturbide egoitzan egunero egiten dituzten ekintzen artean, arrakasta handien daukana da bingo jokoa. Ia arratsaldero egiten dute, eta lagun mordoa batzen dira jokoan. Bingoa edo lerroa egiten dutenak Abaroa tabernan kafea hartzeko bonoak eskuratzeko dituzte. Izan ere, ikustekoa izaten da zelako giro eta saltsa egoten den.

Bide batez, mugikortasuna lantzeaz gain, koloreak ere identifikatu behar izan zituzten, eta arre ezinbestekoa zen.

EGUNKARIA IRAKURTzea

Behin ariketak egin eta gero, Merture begiraleak hainbat galdera egin zizkien. Hain zuzen ere, zer egun zen, zein herritan dauden, zein egoitzatan, zer txanpon erabili behar den, eta abar. Hori guztiari oroimena lantzeko.

Jarraian, begiraleak eguneko egunkariko titular nagusiak irakurri zizkien, eta hainbat albiste komentatu zituzten. Eskelari begiratzea ezinbestekoa zen, baina egoiliar batek zera azpimarratu zuen: "Ez dago inolako eskelaririk, denok ondo gaude". Horoskopoari ere garrantzi handia ematen diote, eta guztiak irakurri zituzten. Gainera, bide batez, norberak noiz jaio zen gogoratu behar du.

11:00etan, askok mezara jotzen dute. Udalako abadeak esaten du meza Iturbiden. Horren ostean, ondo bazkaldu, eta arratsaldean, bingoan jokatzeko dute.

LABUR

1958ko eta 1951ko kintoak urteko batzarrak antolatzen dabilta martxorako

1958ko kintoek (1937an jaiotakoek) urteko batzarra egingo dute martxoaren 28an. 12:30ean, meza izango dute. Horren ostean, txikiteoa eta bazkaria Musakola Hostalean. Interesatuak eman izena lehenbailehen, eta 20 euro ordaindu. Riviere (943 79 02 48).

Bestalde, 1951ko kintoek (1930ean jaiotakoek) martxoaren 6an egingo dute urteko batzarra. Juan Jose Urizarren (943 79 80 08).

Abaroa erretiratuen elkarteak Peñiscolara bidaia egingo du maiatzaren 6an

Abaroa erretiratuen elkarteak bidaia dotorea egingo du Peñiscolara. Maiatzaren 6tik 15era bitartean joango dira. 270 euroren truke, lau izarreko hotel baten bederatzi gau egingo dituzte, pentsio osoko erregimenean; joan eta etorriko autobusa ordainduta izango dute eta aseguru guztiak barne egongo dira. Izena emateko epea zabalik dago otsailaren hasiera ezker.



Erretiratuek Aratustek gozatu zituzten

Aurreko astean iragarri genuen moduan, herriko erretiratuek gustura ospatzen dituzte Aratustek. Horietako asko ez dira mozarrotzen, baina martitzena egun berezia izan zen eurentzat. Iturbide egoitzan bizi diren erretiratuak mozarrotu egin ziren, txokolatea eta txurroak jan zituzten, eta musikari batek emanaldia eskaini zien.

Uribarri eta Abaroa elkarteetan askariak egin zituzten. Santutxuko Samasiku txarangak Abaroako elkarteetan zeuden erretiratuei bisita egin zien, eta haiek oso ondo hartu zuten. //B.

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA
Bazkari eta afariak
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Aretz
Taberna
Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETAK

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Gambrinus
garagardotegia
• Menua:
bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
• Pintxoak eta kazuelatxoak
Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Eider Garro
Otsailaren 29an, 8 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Nahia Zeziaga
Otsailaren 21ean, 8 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Alazne Zubillaga
Martxoaren 3an, 3 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Maider.



ARRASATE
Janire Bassecourt
Otsailaren 26an, 1 urte.
Zorionak! Familiakoak eta bereziki aitona-amonak.



ARRASATE
Maite Lizundia
Martxoaren 2an, 2 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Jone.



ARRASATE
Beñat Salaberri
Otsailaren 28an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Alaitz Garitano
Otsailaren 28an, 2 urte.
Zorionak! Ikerne eta Andoni.



ARRASATE
Gotzon Arzelus
Martxoaren 1ean, 31 urte.
Zorionak!
Lankideen partetik.



ARRASATE
Angel Atxa
Otsailaren 26an, urtebetetzea.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Maialen Etxabe
Otsailaren 26an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARAMAIO
Ander Lopez
Martxoaren 4an, 11 urte.
Zorionak! Aita, ama, Bingen eta familia.



ARRASATE
Mari Carmen Pavon
Otsailaren 26an, urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoan partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSEn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein markakoa zen Arrasate kooperatibaren irudiotako furgoneta?
Arrastoa: marka alemana zen, eta Gasteizen lantegia zuen marka hark.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

RAM esnea
Osoa/erdigaingabetua/gaingabetua

0,62€ 103 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MIREN BRAGADOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Miren!
Galderen erantzun zuzena:
Grupo San Juan.

ARRASATEKOHISTORIA

Ignacio Zuloaga margolariaren omenezko kalea

'MONDRAGON SUS CALLES' / J. LETONA

San Frantzisko komentua-
ren atzeko aldean hasten
da kalea eta Monterron
jauregian bukatzen da.
Ignacio Zuloaga margolariaren
omenez ipini zioten izena.

Ignacio Zuloaga Zabaleta:
Eibarren jaio zen, 1870ean. Daniel
Zuloaga urregile trebarean eta
zeramista nabarmenaren semea
zen. Aitak nahi zuen semeak lan-
bide bera ikastea, baina semeak
margolari izan gura zuen. Hala,
Prado museoa ibiltzen hasi zen
eta kopia batzuk egin zituen han.
Erromara joan zen gero, antzi-
nako artea ikastera. Handik Pari-
sera joan zen, eta, beste asko beza-
la, buhameen moduan bizi izan
zen; larritasun ekonomiko ere
bizi izan zuen. Handik Londresera
alde egin zuen, eta, horren oste-
an, Sevillara joan zen. Hango
emakumeek eta toretzaileek
txunditu egin zuten.

1896an hasi zen ezagun izaten.
Bartzelonako erakusketa batera
margolan bat bidali zuen, beste
bat Luxenburgora eta beste bat
Bostonera.

Esan izan dute Zuloagak hiru
artistaren eragina izan zuela:
Grecorena, Velazquezena eta
Goyarena. Edozelan ere, oso ondo



UBANE MADERA

Eibarko margolariaren omenez ipini zioten irudi honetako kaleari Ignacio Zuloaga izena.

barneratu zituen, eta estilo pro-
pioa garatu zuen.

Ezagunak dira, adibidez,
zezenketekin lotuta egin zituen
margolanak. Baina festa horren
alde airoso, pozgarri eta kement-
suena ezabatu eta zatirik kru-
delena besterik ez zuen margotu.

*Zumaian bizi izan
zen, eta han, museo
bat egin zuten bere
koadroekin eta beste
askoren lanekin*

Esaterako, ez zuen margotu pla-
zaren barreneko pozik; herri txi-
kietako plaza kaskarrak margo-
tu zituen, ohol zaharrek egin-
dakoak. Eta goian, zerua, laino
beltz itogarriz betetzen zuen. Beti
Gaztela zaharra erakutsi zuen, txi-
roa, ezjakina eta aurrerapenaren

hobekuntzetatik kanpo zegoena.
Hortxe, besteak beste, *Las brujas
de San Millán, El enano Gregorio
el Bolero, Mujeres de Sepúlveda* eta
*La cofradía El Cristo de la San-
gre* margolanak.

Ignacio Zuloagak emakume-
en irudien bitartez erakutsi zuen
artearen alde alaiena. Eta, erre-
tratuei dagokionez, Zuloagaren-
dako ez zen burua bakarrik
garrantzitsua. Margolari eibar-
tarrarendako erretratuaren alde
guztiek zuten garrantzia: jan-
tziak, atzeko aldeak...

Horren harira, Arrasaten
jaio zen Beistegi aberats esku-
zabalararen irudia margotu zuen,
beste askoren artean, Ignacio
Zuloagak. Parisko Louvre muse-
oan dago.

1926an, Gipuzkoako hiriburu-
ko Ateneoak omenaldia egin zion
Zuloagari.

Artistikoki helduaroan zego-
ela hil zen Zuloaga margolaria,
1945ean, Madrilén, bihotzeko-
ak jota. Egun batzuk lehenago
omenaldia egin zion Elgetan
Pablo Uranga lagunari. Ignacio
Zuloagaren gorpua Madrildik
Donostiara eraman zuten.
Donostiako Orfeoiak abestu
zuen haren hileta-elizkizunean.
Eta jaioterrian, Euskal Herrian,
ehortzi zuten.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko otsailaren 27a / 98. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Herrian euskararen erabilera bultzatzeko planerako ekarpen bila

UBANE MADERA

Euskara Biziberritzeko Plana lantzen dabil Udala; planaren zirriborroa idatzita dute, eta, orain, herritarren ekarpena nahi dute, uste dutelako gai hori lantzeko elkarlana behar dela.

Aramaion euskararen erabilera bultzatzeko plana egiten dabil Udala. Eusko Jaurlaritzatik bideratutako egitasmoa da, hainbat herritan abiarazitakoa. Hain zuzen ere, euskararen normalizazioa lortzea da helburua, eta horretarako plangintzaren zirriborroa egin dute, herriko arlo guztiak kontuan hartuta: kirolak, gazteak, kultura, aisialdia... Are gehiago, zenbait agente sozialekin eta euskararekin lotutako ekimenetan zeresan handia duten taldeen lankidetzeta eta ekarpenak eskuratu ditu Udalak: Txirritola Euskara Elkarteak, eliza eta San Martin Eskola, esaterako. Baina, era berean, zenbait arlotan hutsuneak ikusi dituzte, gazteen eta erretiratuen aldetik, bereziki.

Gauzak horrela, eta gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, Udalak argi utzi nahi du Euskara Biziberritzeko Plan horretan interesa duen edozeinek parte har dezakeela. Eta halako ekimenak aurrera



Euskara Biziberritzeko Planean lanean dabiltzan Udaleko ordezkariak batzarra egin zuten martitzenean.

eramateko beharrezkoa dela herritarren parte-hartzea. Horren ondorioz, dei berezia egin nahi dute ekimenean parte hartzeko. Hala, planaren zirriborroa eskuratu nahi duenak Udalean dauka ikusgai.

Behin herritarren-eta ekarpen guztiak jaso eta gero, hurrengo bi urteotarako plana egingo du Aramaio Udalak. Eta plan hori

betetzen dela zaintzeko batzorde bat sortuko dute.

JAITSI EGIN DA ERABILERA

Aramaion, herritarren %61,4k erabiltzen dute euskara. Orain dela bi urte, berriz, %65,4k erabiltzen zuten. Bi kasuetan, ezagutza maila bera zen: %85,6. Horrek esan nahi du orain dela bi urte baino

herritar gutxiagok erabiltzen duela orain euskara. Udalak egindako inkesta batek erakusten du, 25etik 64 urtera artekoen artean dagoela hutsunerik nabarmenena. Kezkagarria zera da: haietako ia guztiak dakitela euskaraz, baina ez dutela erabiltzen. Era berean, inkestak dio baserri giroan gorde dela ondoen euskara.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibañe • Langilea

Osasunarekin negozioa egitea ez da zilegi

Gaur egun edozein aitzakia da ona negozio biribila egiteko, Espainiako Felipe printzearen eta Letizia Ortizen ezkontza kasu. Jakina, adibide horretan ez dira ageri interes komertzialak bakarrik, interes politikoak ere tartean daude; monarkia herritartu edo ez herritartu. Hala ere, bi horien musua duten platerak erosi gura duen jendea badago, niri bost. Neuri behintzat sekulako indigestioa eragingo lidake zopa jaten nabilela haien aurpegi monarkikoa ikusteak.

Kasua da dena ez dela zilegi; gauza guztiak ezin dela negozioa egin. Eta, horietako bat gure osasuna da. Jakinekoea da

industri farmazeutikoa dela munduan diru gehien ateratzen duena, arma industriarekin batera.

Botikak saltzeko medikuarenera joaten diren komertzialen bisitak murriztuta daudela legez. Euskal Erkidego Autonomoan behintzat arautua ei dago. Botikara errezetarekin joaten garenean ere hango profesionalak daukagun gaitza osatzeko dagoen botikarik merkeena emateko



"Kasua da gauza guztiak ezin dela negozioa egin"

obligazioa du.

Bestea da, medikuak gaixoak atenditzen dauden lan orduetan botika enpresetako komertzialek ezin direla medikuengana joan. Eta hori ez da betetzen, batez ere mediku espezialisten artean. Guk horrelako kasu baten aurrean, horiek saltzeko

eskubidea dugu.

Enteratu naizen gauzarik larriena da komertzialek, enpresetako botikak medikuei

saltzearen, sekulako bidaiak, asteburuak hotel jakinetan, sakelako telefonorik modernoenak eta hainbat eta hainbat operari egiten dietela medikuei. Halaber, hori oso normal ikusten da eta onartuta dago osasunaren profesionalen artean. Eta hori lotsagarria eta barkaezina da.

Hori guztia ez da batere osasungarria guretzat. Osasun sistema publiko eta pribatuak adarra jo ez diezaguten, tinko eta erne ibili beharrean gaude. Voltaire-ek zioen moduan, "osasuna larregiko inportantea da medikuen esku uzteko". Beraz jaun andreok, argi ibili.

LABUR

Gazte lokaletan izena emateko epea luzatu dute

Joan den astean esan genuen inork ez duela izenik emateko gazte lokaletan sartzeko. Hori hala zen artikulua idatzitako genuenean; baina, itxuraz denez, Txirritola aldizkariak argitaratu zenerako, zenbait gaztek emanda zuten izena. Hala jakinarazi digu alkatetza oraingo astean.

Berez, gazte lokaletarako izena emateko epeak gaur hilak 27, amaitu behar zuen baina, gazteak erantzuten hasi direla ikusita, Udalekoek erabaki dute beste astebetetzuztzea epea. Beraz, orain martxoaren 5era arteko astia dago.

Behin gazteen izen guztiak hartuta, Udalak gazteekin berba egingo du lokalak erabiltzeko zehaztu behar diren koak zehazteko.

Gazte Batzarra sortzeko bilera, datorren astean

Zenbait gaztek Gazte Batzarra sortu nahi dute herrian (politikoa), honako ekimenak egiteko: gazte koadrilen arteko harremanak hobetu, Aramaio ezagutu, euskara landu, herritako jaiak antolatu, gazte ekintzak antolatu, ikastaroak eta irteerak egin eta ohitura zeharrrak berreskuratu, besteak beste. Hala, ekimenean parte hartu nahi duten gazteei deia egiten diete datorren martxoaren 5ean egingo duten batzarrean parte har dezaten 19:00etan hasiko da, kulturetxeko sarreran.

Jai batzordea osatzeko jendea bila dabil

Aurtengo jaiak antolatzeko batzordea osatzen hasi dira Udalean. Horren harira, parte hartu nahi duten guztiak deialdia egin diete; baina batez ere gazteei. Modu horretan, gazteek euren guztia jaiak antolatzeko aukera izango dutelako.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	19:30
19:00	19:15	
21:00	21:25	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKOEN PARTIDUAK

Asteburuan atseden izan ostean, bihar berriro dute hitzordua Bañerako taldeek. Neskek Fumikomi taldea izango dute aurrez aurre, Aramaion, 11:00etan. Mutilek, berriz, kanpoan jokatu dute, Jesus Obreroren kontra, 11:30ean.

BARIKUKO ZINEMA

Gaur, barikua, *Shakespeare enamorado* (Shakespearearen in love) filma emango dute. John Madden zuzendaria- ren komedia da. Besteak beste, Gwyneth Paltrow eta Joseph Fiennes dira protagonista.

DOMEKAKO ZINEMA

La vida de Bryan izeneko film ezaguna emango dute domekan. Monthy-Pyton talde britainiarrak egindako film barregarria da, Jesusen bizitzan oinarritutakoa.

BERTSOLARITZA

Gaur, barikua, Gasteizko Kobazulo tabernan Arabako Bertsolari Gazteen saioa izango da, 22:00etan. Manex Agirrek, Irati Andak, Manex Viñasprek eta Amaia Altubek jardungo dute.

ARATUSTEAK

Sekula baino lehenago esan digute kaixo eta agur aurtengo Aratuste jaiek

San Martin eskolakoek astelehenean eta martitzenean jai hartu dutela-eta, sekula baino lehenago etorri eta joan dira aurtengo Aratusteak Aramaion.

Barikuan, elurpean eta arkupean ospatu zituzten jaiok. Kalejira bertan behera utzi, eta eskolapean eta eskolako jangelan ibili ziren. Denetik zegoen: *txatxoak, joaldunak, basabixiloreak, ijitak...* Mozorro gehienak Euskal Herriko Inauterietan oinarritutakoak izan ziren, eta, gainera, umeek eskolan landutakoak. Hain zuzen, zapatuko lehiaketara aurkeztu ziren eskolako batzuk, eta *Basabixiloreek eta atorrek* eta *Joaldunek* bigarren eta orijinaltasunaren sariak irabazi zituzten umeen sailean. Lehen saria *Juan Pablo II.a Aramaion* izeneko mozorroak irabazi zuen. Nagusien mailan, berriz, *Martziakoak* izan ziren lehenak, *Lorezainak* bigarrenak eta orijinaltasunaren saria *Txaxi Pandi* taldeak irabazi zuen.



Joaldunen eta Basabixiloreen eta Atorren taldea, zenbait martetar eta trikitalariak.

BOTEPRONTOAN/ Koldo Ajuria · Basozaina

“Aramaion, eta Araban oro har, basoa handitu egin da azken 50-60 urteotan; ondare garrantzitsua da”


Aramaioko eta inguruko basoak zaintzen dabil Koldo Ajuria azken 15 urteotan. Urrunagakoa da, baina Oletan bizi da orain dela 11 urte. Diputazioari langilea da, Ingurumen Sailekoa. Oposizioz atera zuen basozain izateko lanpostua:

Zein da, zehatz-mehatz basozain batek egiten duen lana?

Denetarik: Udalaren eta Diputazioaren arteko harremanak leundu; mendian egin beharreko lanen lehentasunak zehaztu; udalekin eta partikularrekin garbiketen, inausketen eta halakoen gainean aholkularitza lana egin; pinudiak-eta neurtu... Hain zuzen ere, baso-produkzioaz arduratzen gara, ehiza eta arrantza beste baten ardura dira. Baso-produkzioaren barruan zera sartzen da: mugatzeak, garbiketak, suak emendatzea, izurriteen kontrako tratamenduak, Urkiolako parkearendako ere egiten dut lan, Aramaiok han lursailak ditu-eta...

Zenbat hektarea dira zure ardura?

Gutxi gorabehera 4.000-5.000 hektarea: Aramaiorena gehi Diputazioak daukan lursail bat (Albinagoia), Jarindo eta orain dela gutxira arte Legutiano.



Zein arazo izaten dira nagusi basoen kontuan?

Egia esan, Aramaion ez da arazo handirik izaten. Aramaion, eta Araban oro har, basoa handitzen dabil. Hamar urtean behin halako inbentario bat egiten dugu eta horrek erakutsi du basoa handitu egin dela. Izaten den arazo handiena da mendira-eta doan jende askok duen etika falta: zaborra uzten du, sua edozein lekutan egiten du... Dena dela, egoera hori ere dezente hobetu da; behintzat, ni hemen nagoenetik igarri da aldaketa. Oraindik ere Albinan izaten da arazorik, kanpaldien-gatik-eta, udan batez ere; Urkiolan motoan ibiltzen dira batzuk... Baina, bestela, ez dago arazo handirik. Aramaion, basoei dagokienez, aberastasun dezente dago. Albina eta Oleta-Jarindo inguruan hariztiak eta

pagadiak daude, Ibaratik oso gune desberdina dira; aberatsa da, bai. Aramaioko ezaugarrieta-ko bat da harreman ona dagoela mendi partikularren eta publikoaren artean: pinudiak daude, baina baita ere pagadiak...

Lehen esan duzu basoa handitu egin dela; zela da hori?

Handitzen doa, bai. Izan ere, abeltzaintza gutxiago dago, eta lehen larretarako erabiltzen ziren mendi partikular ugari, orain, pinutarako erabiltzen dituzte. Aramaioko jende asko Fagorren dabil lanean, eta egoera aldatu egin da. Orain dela 50-60 urterekin konparatuta, baso gehiago dago. Gaur egun, herriaren %50 edo gehiago basoa da. Eta hemendik urte gutxira arazo izango da.

Zergatik?

Larre asko galdu egingo direlako. Fabrika eta abeltzaintzan, bieran lan egitea oso zaila da. Abeltzaintzaren alternatiba ona zuhaitzak landatzea izan daiteke.

Baserrilanerako denborarik ez duenari hori gomendatuko zenioke?

Bai, zuhaitzak landatzea: epe motzerako edo ertainerako irabazirik nahi izanez gero, *Intsignis* pinua; bestela, *Douglas* izeia, intxaurrendak...

“Hektarea bat ‘Intsignis’ pinuk, urtean, larre batek besteko etekin ematen du”

“Basoa hazi egin den neurrian, animalia gehiago dago: orkatzak eta basurdeak, adibidez”

ERRETRATUZAHARRA

Gerra aurreko
Mondragon
FC taldea

Futbol kontuak ekarri dizkigute oraingo astean argazki zaharren tartean ateratzeko. Herriko taldea da, Mondragon FC 1935eko apirilaren 21ean.

Maalako futbol zelaian daude jokalaria. Gure berriemaileak kontatu digunez, ia denak hil ziren gerran.

Honako hauek dira, goian, ezkerretik eskumara: Jesus Amozarrain, Pedro Guridi, Eraña Caxo, Legarre (Legarre baserrikoa zen eta hala esaten zioten), Fortunato Bedia (kapitaina), Ignacio Olazabal Kinke eta Pereira. Eta behekoak honako hauek dira, ezkerretik hasita: Benjamin Pereira (masajista), Panadero, Benito Etxebarria, Castor Uribe eta Gonzalez Chapas. Entrenatzailea Azkoaga Portu zen, baina ez da azaltzen argazkian. Bestalde, masajista izateaz gain, Benjamin Pereirak bestelako zereginak ere bazituen. Adibidez, jokalarien botak narruzkoak izaten ziren eta iltzeekin zeuden lotuta. Hala, iltzeren bat askatzen zenean, Pereirak konpon-



tzen zuen, atzera jantzten zuen bota jokalaria, eta aurrera.

Gure berriemaileak kontatu digu sasoi hartan erregional mailan zegoela Mondra taldea eta emaitza onak lortzen zituela, gainera. Domeketan jokatzeko zitezuten partiduak, gainerako egunetan lan egin behar izaten zutela-

ko. Eta herritar dezente joaten zen arrasatearren partiduak ikustera, ez zuten eta bestela zeregin handirik izaten. Hain zuzen ere, argazkiaren atzeko aldean ikusten diren etxeen balkoietan abadeak egoten ziren, tribuna balitz bezala, futbol partidua ikusten, elizako bezperak bukatu eta


gero. Bestalde, etxeen ondoan ELMA lantegia ikusten da. Orduan ez zen gaur egungoa bezain handia.

Argazkia eta informazioa: Jose Zulueta.
Urtea: 1935.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Arrasateko
inguruak
zurituta

Joan den astean atera genuen eskuinaldean dagoen argazkia, egubakoitz arratsaldean. Bazirudien ez zuela elur gehiago egingo, baina ordu batzuk geroago, 13:00ak aldera berriro ere hasi zuen elurra. Arrasateko kaleak zuritu ez baziren ere, inguruko mendiak zuri-zuri geratu ziren. Gainera, inguruko mendateetan zirkulazio arazoak izan ziren.



≈ 1985 Argazki zaharra Roberto Mendik atera zuen, 1985eko neguan. Argi dago eguntan baino elur gehiago egin zuela.



2004 Arrasateko teiltatuak eguen arratsaldean zurrutu ziren, baina Altamiratik ezin izan genduen argazkirik atera, ez zen-eta ezer ikusten.

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrian erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxe: 943 79 01 82

Orain

Debagoiena esku-eskura

Goiena.net

Debagoieneko ataria Interneten

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

ILUNTZEAN

Idoia Zenarrutzabeitia
solaskide

Eguenean, martxoaren 4an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz



Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22